...eta Kitto!
2019-XI-8 1118 zkia.



# Moda hiru dimentsiotan

EUKI
ASEGURUAK



AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!

AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA, KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA, ATOIAK...

AUTO
ASEGURU
ESKAINTZA

Informazio gehiago: **eukiseguros.com**

DEBABARRENA
# tripontziak
VI. EDIZIOA
KLUB GASTRONOMIKOA · CLUB GASTRONOMICO

*Erreserbatu zure tripontziak menua!*

www.debabarrenaturismo.com

## 2019ko azaroaren 8tik abenduaren 1era

### HOSTAL ITZIAR
**ITZIAR**, Itziar gaina, z/g
943 19 90 61 - 619285064
www.hostalitziar.es

- York urdaiazpikoz kiribilduriko Doniene baserriko porruak, Goienetxeko gaztaz egindako saltsarekin
- Beliosoro Behekoa baserriko txahal-masailak Flysch txakolinaz egindako saltsarekin
- Etxeko sagar-tarta Mendaroko txokolate urtuaz bustita

### KANALA
**ITZIAR**, Itziar Industrialdea, 2
943 199 035
www.hotelkanala.com

- Kantauriko hegaluze-mendreska entsalada, labean erretako piperrekin
- Zapo- eta otarrainxka-burruntzia, bere olio erreearekin eta arrozarekin
- Euskaltxerri azpizuna, laranja-saltsarekin eta patata-gratinarekin
- Mendaroko txokolateaz egindako coulanta mango-saltsarekin

### LASTUR TABERNA
**LASTUR** - San Nikolas Plaza, 5
943 199 033 - 679 928 393
www.lastur.eus

- Pistoz eta garaiko barazkiz betetako taloa "Lasturko eran"
- Kantauri itsasoko legatza plantxan, piper-saltsarekin
- Euskaltxerri sahieskia eztiarekin, labean gorrituta
- Mendaroko txokolateaz gozatutako sumendi-tarta

### MENDIOLA
**ERMUA**, Erdikokale, 19
943 54 35 80
www.facebook.com/Mendiola-Jatetxea

- Baserriko arrautza galdarraztatua, sasoiko barazkien eta patataz eta trufaz egindako kremaren gainean
- Txipiroi kurruskaria berakatz beltzaz egindako ali-oliarekin eta Sagarmiña txakolinarekin egindako bere zukuarekin
- Alkorta bakailao-trontzoa gure basoetako onddoekin egindako pil-pilarekin
- Eusko Label buztan medailoia
- Baserriko esnez egindako panna cotta Mendaroko txokolatezko crumblearekin

### BELAUSTEGI
**ELGOIBAR**, San Miguel gaina, 44
943 743 102
www.belaustegi.com

- Etxeko aperitiboa
- Egotzako ahuntz-gaztaz egindako entsalada epela, sagarrez eta eztiz egindako ozpin-olioarekin
- Alkorta bakailao-trontzoa piperradarekin
- Euskaltxerri masailak, Sagarmiña txakolinaz eta baserriko sagarrez egindako saltsan
- Mendaroko txokolate-moussea Belaustegiko piku-izozkiarekin

### SALEGI
**ITZIAR**, Galtzada kalea, 13
943 199 044
www.salegi.net

- Basetxerria eskabetxe saltsa leunean, sasoiko fruitu lehorrekin eta ogi txigortuarekin
- Begi-handi ravioliak Pelayo erara
- Arroza pagausoarekin
- Etxeko briochez egindako torrada karamelizatua intxaur-saltsarekin

### URGAIN
**DEBA**, Hondartza, 5
943 191 101 - 943 192 048
www.urgain.net

- Onddoz eta Geoparkeko arrainez egindako kroketak
- Perretxiko-entsalada epela
- Kantauriko arrain- eta itsaski-krema
- Geoparkeko legatza edo zapoa plantxan panadera patatekin, edo Eusko Label entrekota
- Sagar-tarta Mendaroko txokolatezko moussearekin

DEBABARRENA

**PARTEKATU ZURE ARGAZKIAK TWITTERREN ETA INSTAGRAMEN, #TRIPONTZIAK TRAOLA ETA JATETXEAREN IZENAREKIN ETA IRABAZI SARI BIKAINAK!***

**Menua 28€**
BEZ barne

Jatetxe guztietan botila bat aukeran:
Sagardoa, Txakolina edo
Arabar Errioxako ardoa.
Ura eta kafea barne.

*** 1. SARIA: Tripontziak egonaldi bat (ostatu-gau bat eta gosaria, bi lagunentzat, Debabarreneko ostatu xarmangarri batean)**
**2. SARIA: Debabarreneko bertako produktu-sorta eder bat**

EUSKADI BASQUE COUNTRY · EUSKADI gastronomika · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · DEBA BARRENA · Debegesa

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**:
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**
Maria Romero

**BANAKETA-ARDURA:**
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.150 ale

**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

*EIBARKO UDALA*

*GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
*KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)*

# eskutitzak

## Ospital berria bai, baina oinarrizko zerbitzurik ez

Behin eta berriz entzun dut gazte gaztea nintzenetik zein garrantzitsua den urtean behin ginekoloarengana buelta bat egitea. Prebentzioa omen da osasunaren oinarrietako bat eta edozein gaixotasun garaiz harrapatzeak duen inportantzia azpimarratu digute. Barneratuta nuen, nire ustetan gure belaunaldiko emakume gehienek bezala.

Azken urteetan urtero beharrean urte t'erdian behin izan ohi ditut errebisioak, *"badakizu, errekorteak"*, neure buruari esan eta aurrera egiten nuen horrekin. Zitologien maiztasuna ere asko murriztu zuten, lehen urtero zena orain hiru urtetik behin, baina *"tira"* horrekin ere.

Joan zen astean izan nuen Eibarko anbulatorioan ginekologoarekin azken errebisioa. Bai *"azkena"* diot hala azaldu zidalako medikuak berak. *"Aurrerantzean zerbait sentitzen baduzu zure famili medikuak bideratuko zaitu hona. Bestela, bost urtetik behin zitologia bat egiteko karta bat jasoko duzu etxean eta bi urtetik behin mamografia"*. Harrituta galdetu nion ea nola zen hori posible eta lasai askoan erantzun zidan *"ez zara urtero traumatologoarengana joaten, ezta? Ba gu berdin"*. Nire harridura azaldu nion, prebentzioa, gaixotasunak garaiz detektatzeak eta orain arte kontatu diguten guzti hori non geratu den galdetuz, ea orain arte zergatik izan garen kontrolatuak eta hemendik aurrera ez… *"Politikoen gauzak"* entzun nuen bueltan.

Duela hilabete batzuk hogei urteko emakume gazte batek zera esan zidan, eurei ez dietela errebisiorik egiten 25 urtera arte. Ez dakit nik zenbat aldiz entzun dudan sexu harremanak izaten hasi berritan komeni dela ondo begiratzea, orduan omen dagoelako gure gorputza sexu bidezko gaixotasunak harrapatzeko egoerarik errezenean. Beno, ba ez, ez dute errutinazko errebisiorik egiten. Gaixorik sentitu ezkero zure famili medikuarengana joan eta berak bideratuko zaitu ginekologoarengana. Beraz batzuk gazteegi eta ni, 51 urterekin, dirudienez zaharregia naiz Osakidetzaren begietarako.

Amorrua eta pena batera ditut barrenean borborrean. Gogoan dut nire nerabezaroan Bidebarrieta kalean zegoen "planing"era joaten ginenekoa. Han izaten genuen ginekologa eta sexologa baten laguntza. Urteroko errebisioak egiten zizkiguten, jakina, eta baita hitzaldi eta formazio saio batzuk ere. Itxi ziguten eta aurrerantzean anbulatoriora joaten ginen. Orain hara ere ez. Hurrengo urtean kontsulta pribatu batera joatea baino ez zait geratzen, oraingoan ere ordaindu ahal dutenek jarraituko dute ondo zainduak izaten.

Edurne San Martin Larrañaga

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MOLDE**.- Zerbaitetarako trebetasuna, gaitasuna. *"Beti euki dau pieza txikixetan biharra eitteko moldia"*.
**MOLDIA EKARRI**.- Zeozertarako joera euki, gauza izan. *"Zure semiak badakar moldia hartu daben ofiziorako"*.

# astean esanak

"Zenbat eta temperatura eta hezetasun gehiago izan, herrialde horietako biztanleen sudurrak orduan eta zabalagoak izango dira. Hori egiaztatu den modu berean, Pinotxorenak ere badu bere `egia´, gezurra esaten dugunean sudurraren tenperatura igo egiten delako. Gure aurpegiak bi eremu ditu ardatz Pinotxo efektua neurtzeko: sudurpunta eta kopeta. Gezurra esatean, sudurra 0,6 eta 1,2 ºC artean hozten da, eta kopeta 0,6 eta 1,5 ºC artean berotzen. Tartea zenbat eta handiagoa izan, gezurra aurrean dugun seinale"
(GURUTZ LINAZASORO, SENDAGILEA)

"Jon Bienzobas etakide ohiaren arte erakusketaren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak `inperatibo etikoak´aipatu du horren itxiera eskatzeko. Cristina Iglesiasek Santa Klara irlako faroetxean jarri behar duen interbentzioari, berriz, goraipamen eta diru publiko handiak eskaini zaizkio. Bienzobas espetxean dago. Preso bat margoketan aritzea, kartzelaren zentzu berrezitzailearekin ongi dator. Itsas arrokez inguratutako faro etxea hustea eta milioi bat euro xahutzea eskultura moduko bat kokatzeko? Hobe da Donostiako su artifizialen kalteez erreflexionatzea, oso kutsatzaileak direlako"
(JOSE IGNAZIO ANSORENA, TXISTULARIA)

"Badaukat lagunik haginetako pasta ere Amazonen bitartez erosten duenik. Horiek guztiak ez al dira jakitun plataforma horrek poliki-poliki herri eta hirietako saltokiak desagerraraziko dituela? Eta behin beste saltoki guztiak itxita eta aurrera egiteko aukerarik gabe, berau bakarrik egonez gero, sudur puntan jarriko litzaiokeen prezioak ezarri eta ordaintzera derrigortuta egongo ginatekeela, gure lepora barre egiten duten bitartean? Ez gara konturatuko saltoki eta bestelako negozioek egunez bizitasuna eta giroa ematen dietela herriei; eta gauez, argia eta segurtasun sentsazio handiagoa, lanpostuez gain"
(IKER BARANDIARAN, ZUTABEGILEA)




## Gaztaiñerre ospatzeko kalejiria eta ondra-janak antolatu dittu AEK euskaltegixak

**Eibarko AEK euskaltegixak Gaztaiñerre jaixaren inguruan antolatutako egitarauaren barruan,** martitzenian "Neguko festak" izenburuko hitzaldixa emon eban Oier Araolaza antropologo eta dantzan.eus-eko kidiak Dantzan Biharrian-en lokalian. Eta, horrez gain, Eibarren astelehenian ospatuko dogun Gaztaiñerre egunian, kalejiria eta ondra-janak tabernarik taberna egingo dira. Parte hartzera animatzen diran guztiak Paloma tabernan alkartuko dira, 19:00etan. Han merixendia egin, kopla eta euskal kanta batzuk abestu eta, ondoren, kalejiran beste pare bat taberna bisitatuko dittue. Antolatzaillien berbetan, *"sorpresaren bat be egongo da. Janarixa AEK-ren kontura izango da, baiña edarixa norberak ordaindu biharko dau. Gaiñera, urtero bezala, Eibarko Kantuzaleak bertan egongo dira, trikitilarixekin batera primerako girua sortzeko gertu".*



## Herriko taillarren eta alkarte gastronomikuen arteko harremanak ikertzen




**Udaleko Ego Ibarra batzordiak Eibarko soziedadietako kidien laguntasuna eskatu dau,** *"Eibarko taillarren eta alkarte gastromikuen arteko sare informalak jorratu eta bistarazteko, azken batian kapital sozialaren bidezidorrak ezagutzeko"* aukeria eskinduko daben lanerako. ...eta kitto!-k 1996xan kaleratutako liburua abiapuntu modura hartuta, Enpresen Zuzendaritza, Ezagutza eta Barrikuntzan doktoria dan Igor Etxabe alkartietako bazkidiak zein enpresatan egitten eben biharra ikertzen hasi da. Herriko soziedadietan eta Donostiako Merkataritza Erregistruan datuak jasotzeko, ikerlarixak Iker Eizagirre eibartarra izango dau lagun, Lanbideri esker.

Etxabe zarauztarrak ondo baiño hobeto ezagutzen dittu Eibarko industriaren nundik norakuak, bere doktore-tesiaren atal batian Eibarko kasua aztertu eban-eta. Horren emaitza da "Economic History Research" aldizkarixan argitaratutako "Kapital soziala Eibarren, 1886-1985: dimentsioak, erakundeak eta emaitzak" artikulua. Aittatutako datu bilketarekin beste pauso bat emongo da aurrera oinguan.

## Eskozia la Brava-ren jarduerak

**Bixar Ipuruan jokatuko dan partiduaren aurretik herrixa girotzeko, Eskozia La Brava** taldekuak goizeko 11:00etatik aurrera txosnia zabalduko dabe Untzagan, pintxuak, edarixak eta Eskozia La Bravaren materixala saltzeko. Ondoren, 15:00etan, paella-jan solidarixua egingo da, Haize Aroaren laguntasunarekin. Tiketak gaur gabera arte egongo dira salgai, 10 eurotan, Ametsa eta Azkena tabernetan. Eurixa egin ezkero, udaletxeko arkupietan egingo dira jarduerak. Bestalde, bazkarira doian jende guztiaren artian Eibar-Real Madril partidurako bi sarrera eta Eibar foball taldiaren kamisetia zozketatuko dittue.




## Oindiok be emon leike izena Bizilagunak bazkarixetan parte hartzeko

**Udaleko Inmigraziño eta Kultur Aniztasuneko atalak eta ... eta kitto! Euskara Elkarteak** aurten be bat egin dabe "Bizilagunak" ekimenarekin eta eibartar guztiak parte hartzera animau nahi dittue. Jatorri eta kultura desberdiñetako famelixen arteko alkar ezagutza sustatu nahi daben bazkarixak azaruaren 17xan izango dira aurten eta parte hartzeko aukera ezberdiñak dagoz: anfitrioi modura norberaren etxian bazkarixa eginda, besteren baten etxera gonbidatu modura bazkaltzera juanda edo, bestela, dinamizatzaille gisara jardunda. Izena emoteko zein informaziño gehixago eskatzeko, Udaleko Aniztasun Kulturala atalarekin (943708440 / immigrazioa@eibar.eus) edo ...eta kitto! Euskara Elkartearekin (943200918 / ongietorri@etakitto.eus) ipiñi leike kontaktuan.



## 160 bat lagun alkartu ziran 50 urtiak ospatzeko

1969xan jaixotako eibartarrak primerako eguna pasau eben urriaren 26xan ospatu eben jaixan. Eguzkixa lagun, "kintadaren" aitxakixarekin 160 bat lagun alkartu ziran eta, gehixenak Eibarren edo inguruan bizi arren, beste batzuk Malagatik, Tarragonatik, Bartzelonatik, Galiziatik eta Valladolidetik bazkarirako propio etorri ziran eta, jakiña, ez jakuen damutu, danak ondo baiño hobeto pasau eben-eta. Hurrengo ospakizuna hamendik hamar urtera egitteko asmua dake, *"baten batek aurretik beste zeozer antolatzen ez badau behintzat"*.

# autuan

### 25 URTE DITTUENEN BAZKARIXA

**Azaruaren 23an alkartuko dira 1994an jaixotakuak Eibarko Ipur sagardotegixan alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittu, Kutxabank-eko ES71 2095 5035 0091 1939 0069 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak ipiñitta (epia azaruaren 13an amaittuko da).**

### 1937-XAN JAIXOTAKUEN JAIXA

**Azaruaren 15ian alkartuko dira 1937xan jaixotakuak, Unzaga Plaza hotelian alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu, Kutxabankeko ES13 2095 5035009115389087 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak ziheztuta.**

### PATIÑAK IPURUAN

**Domekatik aurrera "Patiñak Ipuruan" ekimena eskinduko dabe Ipurua kiroldegixan, 17:45etatik 19:45etara, patiñatzera juan nahi daben guztiendako.Martxora arte egongo da martxan, ixa domekero.**






# Eguenian jasoko dau Gure Balioak 2019 Sarixa Nagusilanek

**Debegesak emoten daben Gure Balioak Sarixa aurten Nagusilan Debabarrena alkartekuak jasoko dabe.** Holan, Eibarren ez eze, Elgoibarren, Ermuan, Soraluzen, Mutrikun eta Deban daguazen taldietan parte hartzen daben boluntario guztieri eskualdeko zaharreri musutruk emoten detsen laguntasuna eskertu nahi detse. Sarixa emoteko ekitaldixa Coliseo antzokixan izango da, datorren eguenian, 19:00etan. Ekitaldixak Eibarko Udalaren laguntasuna ez eze, DanobatGroup enpresarena eta SD Eibar Fundazioarena be eukiko dau eta sarreria irekixa izango da, juan nahi daben guztiendako.

*Baroja Collet artistak diseiñautakua da sarixaren eskulturia.*





## Guardia Zibillak pertsonekin trafikatzen eben hiru lagun atxilotu dittu

**Pertsonekin trafikatzen daben talde baten kontra Guardia Zibillak domekan** egindako operaziñuan, Espaiñiako hainbat tokittan zazpi lagun atxilotu zittuen eta hórretako hiru Eibarren, San Kristobal auzuan harrapatu zittuen. Poliziak esandakuaren arabera, albaniarrak zuzendutako gaizkille-taldiak Bilboko portutik jarduten eban, eta etorkiñak ezkutuan eta legez kanpo, Erresuma Baturaiño eruaten zittuan.

## Gaur hasiko da Debabarrena Tripontziak lehiaketia

**Seigarrenez antolatu daben Debabarrena Tripontziak lehiaketia gaur abiatuko da.** Aurreko ediziñuetan bezala, ekimenian parte hartzen daben jatetxietan Tripontziak Menuak 28 eurotan eskinduko dittue oinguan be. Aurten parte hartzera animau diran establezimenduak honek dira: Belaustegi (Elgoibar), Mendiola (Ermua), Hostal Itziar (Itziar-Deba), Kanala (Itziar-Deba), Lasturko taberna (Lastur-Deba), Salegi (Itziar-Deba) eta Urgain (Deba). Lehiaketia abenduaren 1era arte egongo da martxan eta oso errez hartu leike parte: Twitterren (@Deba_barrena) edo Instagramen (@debabarrena) argazki bat partekatu, zure #Tripontziak esperientziaren barri emoten eta sari bikaiñak irabazi. Eta sare sozialik erabiltzen ez dabenak be hartu leike parte bardin-bardin, jan daben tokixan parte hartzeko kupoia eskatu eta datuak beteta.




## Atal barrixa sortuko dogu aldizkarixan, "Eibartarren Ahotan" asmuan oiñarrittuta

**Ego Ibarra batzordiaren "Eibartarren Ahotan" proiektua oiñarri modura hartuta,** ...eta kitto! astekarixan atal barrixa sortuko dogu datorren urtiaren hasieran. Horretarako, hizlarixak alkarrizketetan kontautako pasarte interesantienak aukeratu, gaika bildu eta transkribatu egingo dittugu, ondoren aldizkarixan argittara emoteko, gaixarekin zerikusixa daken ilustraziñuekin lagunduta. Asmua Eibarko aintziñako pasarte, ohittura eta bestelako kontuak gogora ekarri eta irakorlieri hórretxen barri emotia da. Ego Ibarra batzordetik azaldu dabenez, *"astekariko ordezkarixak Ego Ibarra batzordiak urriaren 16xan egindako bilkurara etorri ziran asmua azaltzera eta batzordekidiak oso ondo hartu eben atal barri hori sortzeko ideia, Eibartarren Ahotan ahozko funtsa jendiarengana helarazteko modu ezin egokixagua dalako".*



## Bizi arteko espetxealdixa ezarri detse Raquel Lopez eta haren semiaren hilketen akusatuari



*Hildako bixen famelixakuak, alkatiarekin, eguazteneko ekitaldixan.*

**Eguaztenian egindako prentsaurrekuan, Rakel Lopez Airas eta bere seme Markelen hilketengaittik** epailliak ezarri daben zigorraren barri emon eben Miguel de los Toyos alkatiak, Marisa Soroa abokatuak eta hildakuen famelixakuak. Madrillen bizi zan 44 urteko eibartarraren eta 12 urte betetzeko zittuan semiaren hilketak 2017ko maiatzaren 2xan gertatu ziran Alcobendasen (Madril) eta handik egun batzuetara, maiatzaren 30ian, bikotekidia atxilotu eban poliziak, famelixako kide bateri hiltzaillia bera zala aitortu zetsan-eta. Hilketen barri euki eta segidan, Eibarko Udalak hildakuaren famelixari laguntasuna eta babesa eskindu zetsazen eta, bestiak beste, gorpuzkiñak Eibarrera ekartzen eta Madrillen egin daben epaiketan famelixia akusaziño gisa egon ahal izateko laguntasuna emon detse. Alkatiaren berbetan, *"epaiketan epaimahaixak hartu dau parte eta horrelakuetan egotia ez da bape erreza izaten famelixa normal batendako"*.

Sententziak jasotzen dabenez, ama-semiaren hiltzaillia dan Mounir Ayad-ek 25 urteko kartzela zigorra bete biharko dau andrazkuaren hilketarengaittik eta adin-txikikuaren hilketarengaittik, barriz, kartzela zigor iraunkor berrikusgarrixa (bestela esanda, bizi arteko espetxealdi berrikusgarrixa) ezarri detsez. Abokatuak esandakuaren arabera, *"horrelakuetarako ezarri leikian zigorrik gogorrena ipiñi detse. Sententzia errekurritzeko aukeria dauka oin eta, gaiñera, holan egingo dabela aurreikusi geinke, normala dan moduan akusatuak beraien esku dittuen baliabide guztiak erabiltzen dittuelako beti, agortu arte, baiña halanda be sententzia irmoa dala esan leike"*. Prentsaurrekua amaittu aurretik Rakelen amak eta Markelen amamak, famelixaren izenian, bere esker ona azaldu dau, *"inguruan izan dogun laguntasun eta denpora osuan sentidu dogun babesarengatik"*.




## Internet bidez jarraittuko dittugu domekako hauteskundiak

**Domekan, azaruaren 10ian egingo diran hauteskunde orokorreri jarraipena egingo detsagu,** betiko moduan Eibarko emaitzeri arreta berezixa ipiñitta, baiña informaziñua internet bittartez emongo dogu bakarrik. Botuen zenbaketia amaittu eta, jarraixan, emaitzak jaso ahala juango gara argitara emoten, www.etakitto.eus web orrixan: betiko moduan, Eibarko emaitzak auzorik auzo ikusi, aurreko hauteskundietako emaitzekin konparau eta bestelako informaziñua irakortzeko aukeria izango dozue domeka gabian bertan.

**asteko**
**221.468**
**datua**

***euskal herritarrek jarri dabe gripiaren kontrako txertua, 2019ko kanpaiñia urriaren 14an abiatu zanetik. Osasun Saillak 1,4 millioi euro inbertidu dittu 400.000 dosi baiño gehixago erosten. Iazko kanpaiñian, guztira 373.878 dosi emon ziran.***



## 1966xan jaixotako Iturburuko ikasliak atzera be alkarrekin

**Erretratuan ikusten dittuzuenak Iturburun alkarrekin ikasten ibillittako aspaldiko lagunak** dira. 1966xan jaixotakuen gelako ikasle hónetxek, beste batzurekin batera, bazkarixa egin eben oktubreko azken zapatuan eta, holakuetan pasatzen dan moduan, atzera be alkarrekin eguazela aprobetxauta, pozarren ibilli ziran aspaldiko kontu zaharrak gogoratzen.

# Azentu askoko gizona



*Leku askotan bizi eta gero, Richard pozik dago Eibarren.* **Ekhi Belar**

Richard McElroy Magherafelten jaio zen, Ipar Irlandan, baina hainbat etxe-aldaketa izan ditu bizitza zehar. *"Eskozian hazi nahi batez ere. Aitak esnearen industrian egiten zuen lan eta bere lanaren ondorioz toki batetik bestera ibili ginen".* Richardentzat zaila izan zen, etxe-aldaketa bakoitzean lagun asko uzten zituelako atzean, baina pertsona independentea izaten ikasi zuen txikitatik. *"Azentua aldatzeko gaitasuna hartu nuen baita ere"*, dio barrez. Txikitako joerari jarraituz, helduaroan ere espiritu nomadarekin jarraitu du eta Herbehereetan, Alemanian eta Espainian bizi izan da Euskal Herrira etorri baino lehen.

### Fisikatik...

Glasgoweko Strathclyde unibertsitatean fisika ikasketak egin zituen. Fisika teorikoan jardun zuen lehenengo eta, gero, fisika esperimentalera egin zuen jauzi. Eta arrakasta handiz gainera. *"Applied Physics Letters izeneko aldizkarian nire esperimentu bat argitaratzea lortu nuen".* Hainbat konferentziatan aurkeztu zituen ikerketaren emaitzak, baina Richardek zientziarekiko ilusioa galdu zuen orduan. *"Komunitate zientifikoaren inguruan nuen kontzeptua (guztion artean lan egitea gizadiaren alde) ez zetorren bat errealitatearekin".* Ikerketari mila oztopo jarri zizkioten eta kolaborazio gutxi aurkitu zuen. Tartean, ia beti bezala, dirua. *"Inflexio puntu bat izan zen nire bizitzan".*

### ... informatikara

Richardek beti izan du gustoko programazioa. *"Ipar Irlandan bizi nintzenean, eskolan, klasea hasi baino bi ordu lehenago joaten nintzen eta ikasleei eman ziguten BBC Micro ordenagailua programatzen nuen".* Fisikako esperimentuan ere programaziorako dohainak baliatu zituen. *"Esperimentua luze joan zenez eta laborategian genuen hidrogeno likidoarekin hotz asko pasatzen genuenez, webgune bat sortu nuen kamera baten bitartez laborategian gertatzen zena ikusteko gure bulegotik, laborategian hotzez hiltzen egon barik".* Horrela, informatika fisikari gailendu zitzaion eta ordenagailuen bidetik jarraitu zuen bizitza.

### Lanez lepo

Informatikaren munduan murgiltzeko graduondo bat egin zuen Paisley unibertsitatean eta gaur egun bere emaztea dena ezagutu zuen sasoi hartan. *"Bera Bergarakoa da eta ingelesa ikasten zegoen han. Euskal Herrira itzuli zenean hemengo lan-eskaintzak bidali zizkidan eta hiru lan-elkarrizketa egin ondoren hiru lan-eskaintza jaso nituen".* Madrilen hasi zen beharrean eta ordutik, *"1999eko maiatzetik"*, Iberiar penintsulan bizi da. Madrilen eta Euskal Herrian hainbat enpresatan lanean ibili ondoren, bere enpresa propioa sortzea erabaki zuen orain dela urte batzuk, 'Jarmit consulting'. Oso pozik dago hartutako erabakiarekin. *"Zorionez, lanez lepo ibili naiz hasieratik".*

### Atentatuetatik ihes

Bost urte Madrilen bizi ondoren, ezkondu eta Euskal Herria etorri ziren bizitzera familia osatzeko asmoz. Aurretik sarritan etorri zen bisitan Euskal Herrira eta hainbat alditan hartu zuten Talgoa Madrilgo Atotxako geltokian. *"Martxoaren 11ko atentatuak gertatu zirenean trena hartu behar genuen, baina berandu esnatu ginen eta Gran Vian taxi bat hartzera joan ginenean ez zegoen inor kalean. Ez genekien zer gertatzen zen, taxian konturatu ginen".* Hala ere, ez da atentatu batetik hurbil egon den aldi bakarra. *"Callao kalean bizi ginenean Fnac eta Corte Ingles artean auto batek eztanda egin zuen, inoiz ahaztu ez dudan iratzargailua. Eta txikitan, Ipar Irlandan, bonba-auto baten alboan egon nintzen, baina soldadu batek hartu eta handik atera ninduen bonbak lehertu baino lehen".*

**"Only dead fish go with the flow"**

**Besteen iritziek ez dezatela zuk egiten duzuna mugatu, ezberdina izateko beldurrik ez izan**

Mertxe Aizpurua

Jon Iñarritu

Gorka Elejabarrieta



Bozkatu

Erabaki

BAIETZ!

ehbildu

AZAROAREN 16AN

16:30EAN ETA 19:00ETAN

BIZI DANTZA

AZAROAREN 17AN

16:00ETAN ETA 18:30EAN

SARRERAK SALGAI (8€)

– **El Tío Palancas** (J. Gisasola)
– **Denetik** (Urkizu)
– **Gozoki** (Bidebarrieta eta Sostoa)
– **Laes** (Ziriako Agirre)
– Internet bidez **Kutxabank**-en







Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Matematika eta irakaskuntza asko gustatzen zaizkio Oihana Aristondori. Bokazio kontua da berea. Klaseak emateaz gain, matematikari eibartarrak EHUko Eibarko Ingeniaritza Eskola koordinatzen du eta ikerketarako tartea aurkitzen du ahal den heinean. Pobrezia energetikoaren inguruan dabil ikertzen azken aldian eta 2018an publikatu zituen gai honi buruzko azken emaitzak.



## OIHANA ARISTONDO
## (Eibarko Ingeniaritza Eskolako koordinatzailea):
# "Paperean geratzen dena bizitza errealean erabilgarria izatea gustatuko litzaidake"

*- II. Jakin eta Erein jardunaldia egin zen aurreko astean Eibarren. Zer moduz egon zen?*

Iaz, lehen edizioan, zientzia kaleko jendeari hurbiltzea izan zen helburua. Udaletxean hitzaldi interesgarriak eskaini ziren, edozein pertsonari zuzendurikoak eta denok ulertzeko modukoak, baina ez zen jende asko hurbildu. Aurtengo edizioa prestatzeko Enrique Zuazuak eta Eibarko Udalak guregana jo zuten, EHUko Ingeniaritza Eskolak Eibarren duen atalera. Gure ikasleak oso aktiboak dira, edozer egiteko prest daude eta oso kontzientziatuta daude energia berriztagarrien gaiarekin. Beraz, 15 minutuko hitzaldiak prestatu genituen goizerako; eta arratsaldean, ikasleek proposatutako gai batzuren inguruko hausnarketa egin genuen. Goizeko hitzaldietara jende asko etorri zen, baina arratsaldean ez hainbeste. Hala ere, pozik geratu ginen izan zuen harrerarekin eta jendearen inplikazioarekin.

*- Nolako balio erantsia ematen dio herriari Europako energia berriztagarrien ingeniaritza eskola bakarra Eibarren egotea?*

Demasa! Ingeniaritzaren lau mailetan Kanariar Uharteetako hamahiru ikasle ditugu, adibidez, eta beste hainbat tokitatik etorritako ikasle asko izan ditugu urte hauetan. Euretako batzuk, gainera, karrera amaitu ondoren hemen geratu dira lanean.

*- Karrera hau Eibarren egoteak eragina du herriko eta inguruetako ekosisteman? Hau da, energia berriztagarrien inguruko enpresak, politikak eta abar sortzea bultzatzen du?*

Gure ikasle batzuk enpresak sortu dituzte, eta inguruko enpresa eta erakundeetan lan egiten duten ikasleak izan ditugu baita ere. Bestetik, Udalbiltzaren bitartez hainbat proiektu egin dituzte Udalek. Ei-

barkoak ez, baina gure ateak zabalik daude. Berrizko Udalak, adibidez, biomasa-galdara bat Udalaren edifizio batzuetan jartzeko proiektua landu zuen gurekin. Batzuetan gertatzen da proiektuak ez direla errentagarriak eta ez dagoela diru-laguntzarik. Klimatoia egitasmoarekin, adibidez, erakundeek eta enpresek hainbat erronka jartzen dizkiete ikasleei eta ideia interesgarriak irteten dira. Erregai fosilak desagertzen daude eta energia berriztagarriei begira jarri beharko ginateke.

*- Eibarko Ingeniaritza Eskolako koordinatzailea zara. Zein da zure eginbeharra?*

Lehen zentro bakar bat ginen, baina EHU-k berregituraketa egin zuen eta zentroak batu zituen, unibertsitate izateko gutxienekoak betetzeko (ikasle, langile, doktore... kopuru minimo bat edukitzeko). Gu Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren (EHU) barruan gaude Donostiakoekin batera. 50 kilometrotara gaude, baina zentro bera da. Lehen zuzendari bat eta hiru edo lau zuzendari-orde genituen hemen, baina orain hiru zuzendari-orde gaude. Ni naiz euretako bat eta eskolako koordinazioaz arduratzen naiz. Zuzendari lanak egiten ditut zuzendari kargua izan barik. Orain praktiketaz arduratzen naiz, kudeaketaz baita ere, matematika klaseak ematen ditut eta ikerketa egiten dut.

*- 2018an pobrezia energetikoaren inguruko ikerketa bat publikatu zenuen. Zer aztertu zenuen zehazki?*

Hasteko, Europarako ez dago pobrezia energetikoa zer den zehazten duen definiziorik. Garatutako herrialdeetan pobrezia ekonomikoa errentaren arabera zehazten da, baina garatu gabeko herrialdeetan ez da soldata ikusten, ez dutelako teilaturik, urik edo oherik ere agian. Beraz, beste gauza batzuk begiratzen dira. Ikerketa hau egiteko, horretan zentratu ginen. Errenta zenbaki bat da, kopuru bat; baina beste aldagaiak badituzu edo ez dituzu, hau da, bai edo ez. Gauza ezberdinak dira eta aldagai horiek zelan neurtu jakin behar duzu. Orduan, pobrezia energetikoa neurtu dugu Espainia mailan eta INE-ren datuak erabili ditugu horretarako. Europarako 'Metodo adostua' erabili dugu, hiru aldagai aztertzen dituena. Aldagai horiek matematikoki neurtzen ez zekienak batezbesteko bat egiten zuen emaitzak lortzeko, baina garatu gabeko herrialdeetan pobrezia neurtzeko literatura bat dago eta kasu honetan bide horretatik jo behar genuela uste genuen. Beraz, gauza biak elkartu genituen, pobreziaren eta energiaren inguruko literaturak. Eneritz Onaindia eibartarrarekin egin nuen ikerketa. Orain, Euskal Herri mailan egin nahi dugu antzeko ikerketa bat eta gure ikasle bat ikerketa eskualdekako egiten dihardu.

> **"Erregai fosilak desagertzen doaz eta energia berriztagarriei begira jarri beharko ginateke"**

*- Zeintzuk izan dira ikerketaren emaitza nagusiak?*

Hiri handietan txikietan baino pobrezia energetiko gutxiago dagoela; errenta eta pobrezia energetikoa lotuta doazela; eta toki beroenetan pobrezia energetiko gehiago dagoela, kontzientziazio kontuagatik.

*- Zertarako izan daitezke erabilgarriak ikerketaren emaitzak?*

Beti pentsatzen dugu emaitzak oso baliagarriak izan daitezkeela politikarientzat. Datu-baseak oso handiak dira eta guk taldeka aztertzen ditugu. Adibidez, etxean zenbat jende bizi den ikusten dugu (pertsona bakarra, bikote bat, ama ezkongabea...) eta kaltetuenak zeintzuk diren aztertu dezakegu. Hori interesgarria da zein politika bat edo beste egitea zehazteko. Ikerketaren emaitzak paperean geratzen dira, baina bizitza errealean erabilgarriak izatea gustatuko litzaidake.

> **"Beti izan naiz pixka bat frikia matematikarekin"**

*- Ikerketa egiteko orduan zuek erabakitzen duzue zein aldagai erabili edo pobreziaren muga non ezartzen den, adibidez. Beti dago subjektibotasun puntu bat?*

Bai. Gero, 'sendotasun-metodoak' erabiltzen ditugu emaitzak berresteko.

*- Subjektibotasuna badago ere, errealitatetik hurbil dauden emaitzak eskaintzen dituzte horrelako ikerketek?*

Bai. Ez da errealitatearen argazki zehatza izango, baina oso hurbil egongo da.

*- Ekaia aldizkarian euskeraz irakurri daiteke 'Pobrezia Energetikoa Espainian 2008, 2011 eta 2014ean' ikerketa. Nolakoa da euskeraren presentzia zientzia ikerketetan?*

Ikerlariok curriculum bat osatu behar dugu eta kalitatezko aldizkarietan artikuluak publikatzeko presioa sentitzen dugu (plaza ateratzeko edo lan-baldintza hobeak lortzeko, adibidez). Kalitatezko aldizkariak, orokorrean, ingeleraz egiten dira. Guk euskeraz publikatu nahi dugu, baina unibertsitateak ebaluaketa egiten digunean Ekaia moduko aldizkariak kalitatezko aldizkarien pare jarri behar dituzte, bestela beste aldizkarietan publikatzera behartzen gaituztelako.

*- Betidanik izan duzu matematikarekiko zaletasuna?*

Bai, pixka bat "frikia" izan naiz beti matematikarekin. Bokazio kontua da. Berriz jaio ezkero, berriz ikasiko nuke matematika. Perez Saguak arbel bat ekarri zidan eta egunero ematen nituen klaseak (barreak). Matematika asko gustatzen zait eta klaseak ematea are gehiago.

dica®
URRATEGI INTERIORISMO
eibar
www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27
Telf: 943 857 244
sukaldeak
diseinua




*Euskal Herriko hedabide eta elkarte desberdinetatik Lleidara joandako talde bat. Horien artean ...eta kitto!-ko Ekhi Belar eta Ana Aizpurua.*

Munduko hedabideen mapa azkar ari da aldatzen, eta, gero eta gehiago, tokiko edo gertuko hedabideek lidergo informatiboa irabazten ari diete hedabide handi tradizionaleei. Komunikazio arloko 130 profesional inguru bildu dira urriaren amaieran Katalunian egin den Tokiko Hedabideen Pirinio Arteko Topaketan (CIMP). Kongresua Lleidako iparraldean izan da, Seu d'Urgellen, eta Euskal Herriak ordezkaritza nabarmena izan du. Antolatzailea AMIC (l'Associació de Mitjans d'Informació i Comunicació) erakunde katalana izan da, eta Euskal Herriko Hekimen eta Tokikom elkarteen laguntza izan du.

# Tokiko hedabideei buruzko CIMP kongresuak euskaldunen ordezkaritza nabarmena izan du Katalunian

Piriniotako bi aldeetan diharduten editore, kazetari eta berriemaileen elkargunea izan da CIMP, Euskal Herria, Aragoi, Herrialde Katalanak, Andorra eta Okzitaniako gertuko komunikabideen artean zein hedabide horietan lan egiten duten profesionalen artean esperientziak trukatu eta orainaz zein etorkizunaz hausnartzeko topalekua.

Kongresuak hedabide horien eraldaketa teknologikoari eta negozio ereduari heldu nahi izan die, eta, horrez gain, lurralde dinamizazioari egiten dioten ekarpena baloetsi nahi izan du, bertako editoreen eta publikoaren artean ezartzen diren loturak direla eta. Hurbileko hedabideek nortasuneta errotze-tresna gisa duten garrantzia azaldu da, "*bitarteko txiki baina indartsuak baitira asko behar duten komunitateetan*". Tokiko hedabideak ekonomia lokalaren dinamizatzaile direla jarri da agerian mahaiinguru batean eta horretan parte hartu dute ...eta kitto!-ko ordezkariek. Astekaria kaleratzen duen izen bereko Euskara Elkarteak urtero egiten duen Sagardo eguna edo Arrateko jaietan antolatzen den tonbolaren gainean egin dute berba Eibartik joandako kazetariek.

## Euskal Herriko ordezkaritza nabarmena

Euskal Herriko ordezkariek hainbat gairen inguruan jardun dute: euskarazko tokiko irratiek dituzten erronkak, kalean egiten den kazetaritza audiobisuala, publizitate programatikoa, emakumeen presentzia hedabideetan, diru-laguntza eredu berria azaldu zuen Estibaliz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskera Sustatzeko zuzendariak… Alde baten artean datuak trukatuz audientzien inguruko irakaspenak atera eta elkarrekin audientzia horien portaerak nola azter daitezkeen azaldu zuten, hala nola, euren irakurle komunitatean oinarritutako metrika sistema bat nola garatu daitekeen komunitate horrekiko lotura estutu eta negozio eredua hobetzeko.

## Esperientzien trukaketa

Ramon Salaverria Nafarroako Unibertsitateko irakasleak gertuko komunikabideen erradiografia egin zuen, hedadura handiena tokiko mailan ematen ari dela azpimarratuta. Bestalde, enpresa teknologikoek gertuko komunikabideentzat, agentzientzat zein editoreentzat oso baliagarriak izan daitezkeen tresna eta bitartekoak aurkeztu zituzten. Era berean, BBC britaniar telebista handi eta ezagunak bere esparruko tokiko hedabideekin garatzen duen elkarlanaren berri ere eman zuen Matthew Barraclough kazetariak.

Bestelako gaiak ere landu ziren, esate baterako, inteligentzia artifiziala sare sozialen gestioan, berrikuntza tokiko hedabideetan, publizitate konpartituaren eredu berriak, mikroinfluencerrak, informazio multikanala, edo komunikazioa eta komertzioaren arteko harremana. Ponentzia asko, bi egunetan. Lehenengo edizioa izan da eta ziurrenik 2020an errepikatuko da.

# Zientzia Asteak gozatzeko aukera bikaina eskainiko du etzira arte

Eguaztenean abiatu zen UPV/EHU-ren XIX. Zientzia Astea eta, horren baitan, egitarau zabala prestatu dute, era guztietako jarduerekin. Antolatzaileen berbetan, *"antolatutako 67 tailer eta 30 txangoen artean, gustu eta adin guztientzako ekimenak daude: itsasoari, espazioari edota dinosauroei buruzko tailerrak, besteak beste. Bakteriak, estatistika, geologia, arkeologia edo janari-intolerantziak ezagutzeko aktibitateak ere antolatu dira. Eta, jakina, esperimentuak egingo dira, papiroflexia ikasteko aukera izango dute partaideek, baita hirugarren adinean ariketa fisikoa nola egin erakutsiko da, esaterako"*.

Txangoen artean badaude, adibidez, itsasontziz ibilbideak, gure hirietan dauden sekretu geologikoak aurkitzeko ibilbideak, zientziako museotara, garraioetara edo upeltegitara bisitak. Egitarau osoa Zientzia Astea webgunean dago ikusgai eta aktibitate guztiak doakoak dira. Tailer eta txangoez gain, txokoak, erakusketak, hitzaldiak, txikienentzako zientzia-ikuskizunak ere egongo dira, *"baita Zientzia Club formula ere, umorea, musika eta zientzia*




*osagaiak batzen dituzten bakarrizketek osatutakoa"*. Eta aurtengo nobedadea, "Jakinduriek mundue erreko dau" BertsoZientzia saioa.

Azaroaren 6tik 10ra bitartean Bilbon (Bizkaia Aretoan) eta Barakaldon (Clara Campoamor Zentro Zibikoan) egongo da martxan, azaroaren 7tik 9ra Donostian (Tabakaleran) eta azaroaren 7tik 10era Gasteizen (Bibat Museoan). Bakarrik tailerretan eta txangoetan parte hartzeko da ezinbestekoa izen-ematea eta zientzia-astea.eus webgunearen bitartez burutu beharko da ezinbestez (Barakaldoko erreserbak telefono edo email bidez egin beharko dira, baina. Informazio guztia http://zientzia-astea.org/eu/zientzia-astea-barakaldo/ helbidean dago).



### Bergarako ZTB jardunaldiak

Bestalde, Zientziaren Astearen aitzakiarekin, Bergarako ZTB (Zientzia, Teknologia, Berrikuntza) jardunaldiak antolatu dituzte Laboratorium Bergarak, Berelan Foroak eta Bergarako Udalak. Urriaren 28an hasi eta domekan amaituko diren jardunaldiek, hitzaldi, erakusketa eta tailerren bitartez, zientzia gizarteratu eta sustatzea dute helburu. Bihar egingo duten Wolfram Encounter-a izango da asteburuko ekitaldi nagusia eta bertan parte hartzeko laboratorium@bergara.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 943769003 telefono zenbakira deitu. Gaur eta bihar, bestalde, "Ilustrazio botanikoko tailerra" izango da ikusgai eta, hezkuntza-eskaintzan, "DNA moztu-itsasi eta buala! zelula transgenikoak sortu ditugu" tailerra egingo dute. Informazio gehiagorako http://ztbergara.eus helbidean begiratu.



*Ehundik gora jarduera antolatu dituzte egun hauetarako Zientzia Astearen harira.*

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# “Gazteen artean komunitate artistiko bat sortzea dugu helburu nagusi”




## MARINA CRUCELAEGUI, MARTA PROL eta JONE BARANDIKA (Kaxa):

Kaxa proiektuak jaso zuen Ekingunek antolatzen duen 2019ko ‘On Ekin’ saria. Sormenaren eta mugimenduaren bitartez osasun fisiko eta emozionala sustatzen dituen diziplina anitzeko elkartea da ‘Kaxa’ eta edozein pertsonarentzat ditu ateak zabalik. Eurekin kontaktuan jarri nahiz izanez gero, @kaxagunea helbidean aurkituko dituzue sare sozialetan, www.kaxa.eus webgunean, info@kaxa.eus helbidera idatzita edo 689 116 104 telefonora deituta.

*- Zer aurkitu dezakegu Kaxako atea zabalduz gero?*

Kaxa familian eta mimoz sortutako proiektua da. Espazio libre bat, non norbera nahi duena izan daitekeen. Sormena eta mugimenduaren bitartez haur eta helduen osasun fisiko eta emozionala sustatzen dituen diziplina anitzeko elkarte bat gara. Dantza eta sormena integrazio sozialerako eta bizikidetzarako tresna gisa lantzen ditugu, elkarlana, hezkidetza, integrazioa, naturarekiko errespetua, kulturaren sustapena eta euskararekiko konpromisoa sustatuz. Hau guztia aurrera eramateko ekintza desberdinak burutzen ditugu, edonori zuzenduak daudenak.

*- Zeintzuk dira zuen helburu eta asmoak?*

Bilakaera pertsonala eta profesionala dira gure proiektuaren abiapuntua. Hala ere, ez da gure ideiaren ernamuina. Proiektu hau martxan jarri dugun hiru bazkideok txikitatik hartu ditugu dantza eskolak. Hainbeste urtetan dantzan ibili ondoren, gure bizitzaren parte izateaz gain, guretzako komunikazio tresna eta bizimodu bat da dantza, eta horregatik sortu dugu Kaxa. Ikasketak eta arlo profesional itxuraz desberdinetan aritu garen arren, gure proiektuak esparru horiek integratzen ditu. Jarduera artistikoak osatuz psikologia, hezkuntza eta ikus-entzunezkoak tartekatzen ditugu. Gure ikasleek ikastea nahi dugu, baina, batez ere, ikuskizun bat sortzeko prozesua osatzen duten fase guztietan gozatzea. Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu euskarazko jarduera bat eskaintzea, txikienek hizkuntza esparru akademikoari bakarrik lotu ez dezaten. Bestalde, artea aldarrikapen tresna gisa erabiltzeko aukera paregabea dela uste dugu. Ekintzetan sinesten dugu. Kalean presente egon nahi dugu, kultur eta gizarte ekitaldi ezberdinetan, Euskeraren Eguna edo Emakumearen Eguna bezala. Pertsonen arteko lankidetzan sinesten dugu, gizarte aktibo bat lortzeko.

*- Nolako onurak jaso ditzakete Kaxan parte hartzen dutenek?*

Musika eta mugimendua erabiltzen ditugu erreminta gisa, eta hortik abiatuz, gaitasun ezberdinak lantzen ditugu: erritmoa, malgutasuna, komunikazioa, sormena, psikomotrizitatea eta muskuluen indartzea, besteak beste. Jendea talde baten parte dela sentitzen den espazio bat sortu dugu. Pertsona berriak ezagutzeko leku bat da, belaunaldien eta gizarte-taldeen arteko harremanak sortzeko tokia. Hitz batean, familia bat.

*- Gauza ezberdinak egiteko aukera eskaintzen duzue. Nola funtzionatzen du?*

Elkarreraginez aktibitate global bat eskaintzea da gure xedea. Batetik, ‘Mugisormen’ izeneko saioak ditugu 3 urtetik aurrerakoei zuzendurikoak. Ikuskizun bat bere osotasunean ulertu eta ezagutzeko balio dute eta, musika ardatz izanik, dantza, antzezpena, atrezzoa eta ikus-entzunezkoak lantzen ditugu. Bestetik, ‘Antzezpena’ dugu, ume eta helduentzako. Teknika ezberdinak ezagutu eta praktikan jarriz, hainbat dira antzezpena lantzeak dituen onurak: auto-konfiantza, gorputz-espresioa, auto-ezagutza, autoestimua,

kontzentrazioa, gorputzaren kontrola, erlaxazioa, sormena. Hirugarrenik, 'Hasi dantzan' dago, helduentzako, eta batez ere aurretik dantza egin ez dutenei zuzenduta. Bertan teknikak hasieratik azalduko ditugu, dantzaz gozatzeko aukera paregabea izanik. Koreografia errazak sortuz, ongi pasatzea da ardatz nagusia. Gero, Dantza Lehiaketa' dago, taldean landutako koreografia bat eszenatoki desberdinetan dantzatzeko esperientzia paregabea. Helburu nagusia konpromisoa, dantza, jarrera, espresioa, talde kohesioa... lantzea da. Ondoren, 'Dantza fitness' dugu, dantza egiten kirola praktikatzeko. Soinu eta erritmo desberdinak erabiliz gorputz osoa lantzen dugu eta, kirola egiteaz aparte, klase hauen helburua ondo pasatzea da. Eta azkenik, 'Hauspoa', IES Eibar BHI eskaintzen duen klasez kanpoko programa. Bertan parte hartzen dugu jarduera desberdinak ematen: ikus-entzunezko tailerra, luzaketak, hip-hopa... Bestalde, ikasleei eta Eibarko gazteriari zuzendutako 'Mugisormen' tailer bereziak eskaintzen ditugu ostiraletan musu-truk. Bertan adin desberdineko ikasleekin lan egiten dugu, eta aukera ona da eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukerarik ez duten pertsonentzat. Poliki-poliki gazteen artean komunitate artistiko bat sortzea da gure helburu nagusia.

*- Zein metodologia erabiltzen duzue?*

Balioetan oinarritutako hezkuntza da gure proiektuaren muina. Hau da, berdinen artean hezitzen dugu, sexuaren eta gizarte-taldeen arteko alderik gabe. Talde-lanean sinesten dugu bere kulturaz, naturarekiko errespetuaz eta euskararekiko konpromisoaz kontziente den gizarte bat lortzeko. Garrantzitsua iruditzen zaigu balore hauek egunerokotasunean presente egotea, pertsonak daukaten hezkuntzari informazioa gehitu eta sakonduz. Erabiltzen dugun metodologiak desberdinak egiten gaitu. Gure ikasleak aktiboak izatea nahi dugu. Horregatik, ikasturtean zehar egiten




"Garrantzitsua iruditzen zaigu euskarazko jarduera bat eskaintzea, txikienek hizkuntza esparru akademikoari bakarrik ez lotzeko"

ditugun proiektuak guztion artean sortzen ditugu: gaiak erabaki, musika aukeratu, eta bideoak eta dekoratuak denon artean osatu, adibidez. Ideia guztiak baliodunak eta beharrezkoak direla uste dugu.

*- Nori dago zuzendua?*

Adin guztietako taldeak ditugu 3 urtetik aurrera. Guztiontzako tokia dago Kaxan. Eibarko kokaleku desberdinetan eskaintzen ditugu gure jarduerak astelehenetik barixakura Jardiñetan, Untzagako jubilatuen egoitzan, Eibar Sasoianen, Helmet Housen, Juanito gimnasioan, Koren, San Andres eskolan eta Eibar BHI Institutuan. Irakaslegoari dagokionez, hiru bazkideok eramaten dugu proiektuaren pisu handiena eta beste hainbat irakasleren laguntza dugu.

*- Nola abiatu zen proiektua martxan jartzeko ideia?*

Aspalditik dugun ametsa da, eta urte asko daramatzagu elkarrekin dantzan eta elkarlanean. Proiektu propioa lantzeko gogo handia eduki dugu betidanik, eta gure ikasketak eta pasioa batuz ilusio handiarekin sortu dugu Kaxa.

*- Eta nolako bidea jarraitu duzue dena martxan jartzeko?*

Mugisormen tailerrak hasi genituen eskaintzen asteburu batzuetan Helmet Housen. Hiru ordutako tailerrak ziren eta ikasleekin elkarlanean ikuskizun musikal laburra prestatzen genuen. Esperientzia modura zoragarria izan zen eta arrakasta zuela ikusita, proiektua handitzeko behar genuen bultzada lortu genuen.

*- Nola jaso duzue 'On ekin' saria? Nolako eragina izan dezake zuen jardunean?*

Oso pozik gaude sariarekin. Lan-prozesua gogorra izan da eta herrirako egindako proiektu batek horrelako onespena jasotzen duenean eskertzekoa da. Eraginari dagokionez, jendeari gure proiektua ezagutarazteko aukera da gehien baloratzen duguna. Pertsonendako sortzen ditugu gure ideiak eta aldizkari batean partekatu ahal izatea adibidez, aukera paregabea da guretzat.

*- Eta orain zer?*

Gure helburua ilusioz lanean jarraitzea da. Etengabeko prestakuntzan eta mugimenduan egotea, asko maite dugun proiektua eraikitzen jarraitu ahal izateko.



**ROMAN ESCUDERO PEREZ**

*Zu bezalako militanteak maite ditugulako*

**Esker onez, Eibarko Sortu**



*iokin elortza*

> Aurten ez dago tabakoa ez lagatzeko arrazoirik, botika berriaren emaitzak oso onak direlako; norberak gogo pixka bat jarriz gero, helburua eskura dago

# Tabakoa

**Ohikoa izaten da urte berriarekin egiten diren proposamenen artean tabakoa uztearena egotea. Urtero.** Baina, aurten, proposamen hori aukera handi batekin elkartzen da. Osakidetzak, lehen aldiz, tabakoa lagatzeko lehenengo botika finantzatuko du, Champix izenekoa.

Nafarroan azken bi urtetan finantzatuta egon ondoren, eta izan dituen emaitza onak ikusita, Osakidetzak eta Estatuko Osasun Ministeritzak neurri berdina hartzea erabaki dute. Eta ez da botika merkea (kaxa bakoitzak 100 eurotik gora balio du), baina dituen onurak, eta erretzaileek garatzen dituzten osasun arazo eta gastuekin alderatuta, neurria ez da garestia, oso merkea da.

Champix-aren printzipio aktiboa Vareniclina da. Honek, alde batetik, erretzeko gogoa eta abstinentzia sindromea arintzen ditu, nikotinak erabiltzen dituen errezeptore berdinetan itsatzen da-eta; eta, bestetik, tabakoak erretzaileetan sortzen dituen plazer sentsazioak eragozten ditu, nikotinarekin bat egin eta normalean erretzaileek erretzerakoan plazerra sortzeko burmuinean askatzen duten dopamina blokeatzen duelako.

Azken batean, aurten ez dago tabakoa ez lagatzeko arrazoirik, botika honen emaitzak oso onak dira, eta norberak gogo pixka bat jarrita helburua eskura dago. Bitartean, urte berri on (nahiz eta oraindik asko falta) eta osasuna!



*nagore fernandez*

> Naturak bere boterea etengabe erakusten digun arren, gure egunerokotasunean aurrera egiten dugu, jaramon gehiagorik egin gabe

# Haizea

**Haizeak gogor jo zuen aurreko asteburuan. Arrateko zuhaitzak hankaz -edo sustraiz- gora jartzeaz gain,** fatxada eta teilatuetan ere izan zuen eraginik. Itsasoan olatu izugarriak ikusi dira, indartsuak oso, beldurgarriak. Eta kontua ez da hobera joango.

Egunkarian ikusi dut Gipuzkoako kostaldeko herriek itsaso-mailaren igoera dela-eta, 2050erako jasango duten eragina: Irun, Pasaia eta Zarautzen auzo osoak urpean. Hondarribiako aireportua, Tabakalera, Mutrikuko kaia. Mapa batean kokatutako orban gorri batzuk besterik ez.

Naturak bere boterea etengabe erakusten digun arren, momentuko harridura bizilagunekin igogailuan komentatu eta gure egunerokotasunean murgilduta aurrera egiten dugu, jaramon gehiagorik egin gabe.

Bitartean, Nazio Batuen Erakundeak antolatzen duen COP25 Klimaren gailurra Madrilen izango da, Santiago de Chile Arrateko zuhaitzak bezala dagoelako (beste haize batek jota bada ere). Eta Madrilgo alkatea pozik, kutsaduraren aurkako borrokan duten konpromisoa azaltzeko aukera paregabea delako. Bidegorriak kentzen eta "Madrid Central" delakoaren neurriak murrizten dituen aldi berean. Liluratuta geratzen naiz, benetan.

Eta gurean, zer? Ba, zabor-tasaren igoera: lehen baino gehiago birziklatzen dugula dioten arren, erraustegia ordaindu beharko delako, nolabait. Ze demontre, eraikinak zaharberritu beharrean, utzi ditzagun hutsik eta eraiki ditzagun berriak, efizienteagoak izango dira eta, A+!

Haizeak gogor jo du, baina ez nahikoa, bistan da. Gogoratu domekan hauteskunde orokorrak ditugula...



# 114 urte gure sukaldeetan

Azala berritzen duen animalia izango balitz bezala, BOJek aurpegi berria aurkeztu zuen apirilean. 114 urteko ibilbidea izanik sasoi berrietara egokitzen jakin du enpresa eibartarrak eta azken zaharberritzearekin ez du bizirik jarraitu nahi bakarrik, beste bultzada bat eman nahi dio bere jardunari. Munduko toki guztietara eramango dion bultzada.

BOJek Matsarian duten fabrikatik milioika produktu irten dira Txina, Egipto, Iran, AEB, Vietnam, eta Europa eta Ekialde Ertaineko hainbat herrialdetara. Matsariako fabrika gerraosteko Eibarko ikurra da eta, BOJen goiburuak dioen bezela, Eibarko industriaren eredu bihurtu den enpresa bat jakin dute egiten han. Orain, ordea, bitan banatuko da azalez aldatzen dakien animalia.

BOJ Global da BOJen aurpegi berria eta Ibarkurutzen ditu bulegoak, Banco Gipuzcoano zegoen tokian. Bankuari keinu eginez, gainera, kutxa gotorra eutsi dute eta urrezko kortxo-kentzekoa dago bertan gordeta. Bestela, goitik behera berritu dute lokala, BOJek igorri nahi duen modernotasuna irudikatzeko. *"Hilabete hauek nahiko biziak izan dira, barruan izan ditugun aldaketen ondorioz moldatzeko aldia izan da-eta"*, esan digu Gabriel Ros BOJ Globaleko marketing teknikariak, *"baina oso interesgarria izan da honek guztiak hartzen duen forma nolakoa den ikustea"*.

## Izaera eibartarra

Ibarkurutzekoa BOJen esportazio bulegoa da eta marketineko langileak, produktu-managerra eta esportazioaren inguruan lanean dabiltzan pertsonak egon ohi dira bertan. *"Matsarian tailerra, Santiago Olañeta BOJeko presidentearen bulegoa, finantzariak, iberiar penintsulako komertzialak eta biltegia geratzen dira"*, Rosek dioenez. Bulego berriarekin kalera hurbildu dira, Eibartarron albora. *"Eibartarrengandik hurbilago egoteko eta markaren irudi aktualagoa eskaintzeko joan gara Ibarkurutzera. BOJ 1905. urtean sortu zen, baina inoiz baino aktualagoa da"*. Horrela, Matsariako industrialdeak ematen dion izaera galdu gabe, eibartarron egunerokotasunaren parte sentitu nahi du BOJek.

Besteak beste, izan duen industriagatik da ezaguna Eibar, baina azken urteotan izaera hori galdu egin da. Mundu mailan ospea lortu zuten marka batzuk desagertu egin dira eta beste batzuek Eibartik kanpo aurkitu zuten egoitza berria. BOJek, ordea, Eibarren geratzeko apustua egin zuen eta gure artean egin du 114 urteko ibilbidea. *"Sare komertzial berriekin nazioartean gure presentzia hedatu bada ere, BOJ oso errotuta dago Eibarren, izaera familiarra du eta oso harro dago bizitza osoan zehar bere egoitza Eibarren izateaz"*, Rosen ber-

betan. Bere iritziz BOJen zuzendaritzak esfortzu berezia egin du 114 urtez enpresa Eibarren eusteko, *“nahiz eta kostu ekonomiko altuagoa izan”*.

Zer eskaintzen dio BOJek Eibarri eta zer Eibarrek BOJi? Marketin teknikariaren ustez BOJek lanpostuak eta nazioarte mailan ospea duen marka edukitzea eskaintzen dio Eibarri; eta Eibarrek langileak, Armeria Eskolarekin harreman zuzena eta hurbilekoa, eta eibartarron izaera eta gauzak ondo egiten jakitea eskaintzen dio BOJi. *“Hainbeste urtetako historiak arrasto garrantzitsua utzi du enpresan”*.

Ez da erraza 114 urte dituen enpresa bat aurkitzea, mila gertakizun eta gorabehera ekonomiko gertatu direlako urte hauetan. Beraz, zein izan da BOJen sekretua urte hauetan bizirik jarraitzeko? Hau da Gabriel Rosen erantzuna: *”Zuzendaritzaren eta langileen konpromisoa, eta BOJek enpresa moduan gizartean egon diren aldaketetara egokitzeko izan duen gaitasuna”*. Horrez gain, beste kontu bat aldarrikatzen du marketin teknikariak. *“Produktuaren kalitateari eutsi diogu urte hauetan zehar eta bezeroak zaintzen saiatu gara”*.

**Tradizioa eta berrikuntza**

Kalitatea, hori da BOJek bere produktuei eman nahi dien balio erantsia. Hontz itxurako kortxo-kentzekoa da BOJen produktu ikurra, 1932. urtean patentatu zutena; eta paretako kortxo-kentzekoa, bestetik, 1959. urtean patentatu zuten. Bien diseinua gutxi aldatu da sortu zirenetik, produktuen kalitateari ematen baitiote garrantzia. *“Produktuen xehetasun guztiak eta bezeroak zaintzeaz arduratzen gara, eta horrek egiten gaitu ezberdin”*. Beste herrialde batzuetan (Txinan, adibidez) ekoizten duten enpresek produkzio-maila altuagoa dute eta zentzu horretan eurekin lehiatzea zaila da BOJentzat. *“Gure produktuak Matsarian sortzen ditugu, ez beste inon”*, eta hain zuzen ere hori da BOJen indarra, etxean egiten den kalitatezko produktua eskaintzea. *“Etxean beti ikusi izan ditugu BOJen produktuak”*, dio Rosek. “Nire aitxitxa eta amamaren etxean, adibidez, 30 urte baino gehiago dituen kortxo-kentzekoa dago eta lehenengo egunean bezala funtzionatzen du”.

Metalezko produktuak eskaintzen hasi zen BOJ eta sukaldeko tresnak sortzen pasa du bere historiako denborarik gehie-




na, baina 114 urtetan asko aldatu dira gizartearen beharrak. BOJ beti saiatu da atzean ez geratzen eta jarrera berarekin jarraitzen du gaur egun. Izan ere, bere esentzia markatzen duten produktuez gain (hontz itxurako kortxo-kentzekoak, adibidez), teknologia berrieneko etxetresna elektrikoak sortzen du. *“Adibidez, hutsezko-irabiagailua oso tresna berritzailea da eta Bosch-ek eta guk bakarrik sortzen dugu”*, dio Rosek. Hala ere, sukaldeko tresneriak jarraitzen du izaten BOJen indar gune handiena.

**Ikusgarriago bilakatzen**

Aurpegi-berritzeak behar berriak ekarri dizkio BOJi eta horiek asetzeko lanpostu berriak sortu ditu. Bulego eta langile berriek ez dute enpresaren eguneroko jarduna gehiegi aztoratu, baina aldaketak eman ditu emaitza batzuk dagoeneko. *“Aurretik erabiltzen genituen banaketa-sareak erabiliz merkatuak zabaltzeko apustua egin dugu, Asian batez ere. Hornidura-produktuen eta etxeko-produktu txikien eskaera hazi egin da eta hori asetzen saiatu gara”*.

Nahiz eta orain arte ere munduan zehar ibili den, nazioartekotzeko izaera berretsi du BOJek azken hilabeteotan eta bat egin du gure herriko erakunde internazionalenarekin, Eibar FT-rekin. 2019/2020 denboraldian BOJ berbak janzten dituzte elastikoaren bizkarrean Eibarko jokalariek eta LaLiga jarraitzen duten milioika begiek ikusi ditzakete asteburuRo. *“BOJ-ek beti egin du Eibar FT-ren alde eta babes-*



*BOJ Globalen egoitza berria Ibarkurutzen.*

**AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO**

*9. urteurrena: 2010-XI-7*

*“Beti izango* **zara**
**gure** *bihotzetan”*

*ETXEKOAK*





BOJen tailarra Matsarian.




*Mundu osoko ferietan du presentzia BOJek.*



*le izateko aukera izan dugu orain"*, Rosek dioenez. *"Kamisetetan agertzeaz gain, partiduetarako sarrerak zozketatzen ditugu sare sozialetan eta Eibarko koloreez margotutako produktuak eskaintzen ditugu, besteak beste".*

Sukaldeko tresnak sortzen dituen enpresa izanik, BOJen produktuak ezin ziren falta Euskal Herriko telebista-sukaldari famatuenaren sukaldean. Karlos Argiñanoren telebista-saioan bere tokia du BOJek gaur egun eta Jon William sommelierrak Matsarian egindako produktuak erabiltzen ditu ardoari buruz berba egiten duen atalean. *"Gainera, Argiñanoren Bainet ekoiztetxearekin akordioa dugunez, frontoietan ere gure izena agertzen da".*

Foball zelaietatik eta frontoietatik kanpo, beste proiektu bat jarri du martxan BOJek: 'The art of good living'. *"Bertan, Jon William sommelierrak uztartzeari (maridajeari) eta ardoari buruzko bideoak egiten ditu; eta Aingeru chefak miniaturazko sukaldaritza-errezetak egiten ditu"*. Biek BOJ produktuak erabiltzen dituzte, katalogo berriak duen estetika minimalistaren ildotik.

## Eibarko produktuekin kozinatzen

BOJez gain, etxetresnak eta sukalde tresneria txikiak sortu dituzten hainbat enpresa egon dira Eibarren: G. Arizaga, Solac, Jata, Industrias Albizuri, Aitor, Industrias Alzuca, Irazola... Batzuk desagertu egin dira eta beste batzurk Eibartik kanpo jarraitu dute euren ibilbidea, baina Eibarko ikur izan dira noizbait. Horrela, Debabarreneko ostalariek antolatzen duten Tripontziak programarekin batera, Eibarko Armagintza Museoak 'Sukaldatzen Made in Eibar' izeneko erakusketa jasoko du gaurtik aurrera abenduaren 1era arte.

Aipatutako enpresen produktuak ikusteko aukera egongo da, eta baita enpresen historia eta izan duten ibilbidea ikusteko aukera ere. Beraz, gasezko sukaldeak, txigorgailuak, kafe-makinak eta Eibarren sortutako beste hainbat etxetresna txiki egongo dira ikusgai.

Erakusketa ikusteko doako bisita gidatua egin nahi izanez gero, azaroaren 16an egongo da aukera, 17:00etan euskeraz eta 18:30ean gazteleraz. 20 pertsonarentzako bisita izango da eta 943 70 84 46 telefonora deituta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita eman daiteke izena.

**JOSE Mª LARREATEGI "TXOPEN"**

**1. urteurrena**: *2018-XI-3*



*"Zure maitasunak eta irribarreak gurekin jarraitzen dute. Beti gogoan izango zaitugu"*



ETXEKOAK

## Ia 200 judoka Ipuruan jiu-jitsuko Espainiako Koparen V. edizioan



**Arrakasta handiz jokatu zen aurreko asteburuan Eibarrek bosgarren aldiz hartzen duen** jiu-jitsu modalitateko Espainiako Kopak. Aurreikuspenak gaindituta, Espainia, Portugal eta Irlandako 180 kirolari lehiatu ziren, 25 klub ordezkatuz, eta beste hogei bat epaile izan ziren borrokak zuzentzen. Kalamua herriko klubak 17 ordezkari izan zituen ekitaldian eta lan bikaina eskaini zuten, Julio Gallego entrenatzailearen esanetara. Urrezko lau domina (Naroa Garcia, Nekane Muguruza, Javi Lassa eta Jonatan Terron), zilarrezko hiru (Jonatan Garcia, John Taylor eta Juanma Cabañas) eta brontzezko beste hiru (Iker Martinez, Jon Arteaga eta Eñaut Montes) irabazi zituzten. Bestalde, antolatzaileek "hemen izandako guztien zorionak" jaso zituzten

## Eibarrek indarberrituta hartuko du zapatuan Real Madril




*Iaz 3-0 irabazi zion Eibarrek Real Madrili.*

**Aurreko astean Vilarreal eta Leganesen aurka lortutako bi garaipenekin** Eibarrek sailkapeneko erdi aldera egin du jauzi, eta orain konfiantza gehiagoz hartuko du bihar Real Madril Ipuruan (18:30ean). Iaz 3-0 irabazi zuten eibartarrek, madrildarren aurrean goitik behera nagusituz; zaila izango da horrelakorik errepikatzea. Sailkapenean madrildarrengandik zazpi puntura dago Mendilibarren taldea. Bestalde, Reto Iberdrola ligako Ipar multzoan jokatzen duen emakumezkoen lehen taldeak bana berdindu zuen Oviedon eta bosgarren dago sailkapenean, 3. mailako Vitoria filiala Lagun Onak-i irabazi ondoren hirugarren postura igo da, eta postu horretan dago baita Ohorezko Erregional mailako Eibar Urko ere Mutrikuri 6-1 irabazi eta gero. Euskal Ligan jokatzen duen emakumezkoen bigarren taldea ere goi postuetan dago eta gauza bera esan dezakegu Eibar FT-ko harrobiko talde nagusiei dagokienez, guztiak ere indartsu hasi baitute denboraldia: jubeniletan, Ohorezko mailan Athletic eta Osasunarekin berdinduta daude lidergoan eta Euskal Ligan bigarren dira, Alavesen atzetik; eta kadeteetako Euskal Ligan hirugarren postuan daude,Realarekin berdinduta, eta Athletic eta Antiguokoren atzetik.

## Afizionatu mailako partiduak jokatuko dira gaur Astelenan

**Federatuen Gipuzkoako eskuz binakako txapelketako** bi partidu jokatuko dira gaur Katedralean, 18:30ean hasiko den pilota-jaialdian. Eskolarteko txapelketakoa izango da aurretik, infantil mailako bikoteen artekoarekin: hor Eibarko Pilota eskolako Manex Gisasola eta Rafael Silvak Oñatiko bikotea izango dute aurrez-aurre. 19:15-etik aurrera, bestalde, helduen mailako partidu biak jokatuko dira, herriko bikote bi protagonista dutela: lehendabizi Deporreko Astigarraga eta Condek Lazkaoko LAPKE-ko bikotearekin neurtuko dituzte indarrak eta, jarraian, Agirresarobe eta Narbaizak Getariako Guretxerukoak izango dituzte aurkari.






## Udazkentrailean nabaritu zen gero eta jende gehiago animatzen dela trailak egitera

**Eguraldiak lagundu bazuen ere, udazkentrailean izandako giro bikainarekin pozik** daude Kalamua Korrikalari Taldeko antolatzaileak eta parte hartu zuten guztiak. San Salbador, Azurtza, Galdaramiño eta Karabieta ingurutik egindako 18 kilometro eta erdiko ibilbideak jende asko hartu zituen. Gero eta jende gehiago animatzen dela diote, "distantzia eta desnibel egokiak dituztelako eta, horrez gain, lagun giroan egiten direlako eta erritmo desberdinak errespetatus". Hurrengo trail irteera Gabontraila izango da, abenduaren 24an goizeko 08:00etan abiatuko dena.

## San Andres pala txapelketaren lehenengo edizioa jokoan da




*17 bikotek dihardute parte hartzen San Andres pala txapelketa antolatu den lehenengo edizioan.*

**Urriaren 14an hasi zen aipatutako txapelketa, 17 bikoteen parte-hartzearekin,** eta abenduaren 15ean amaituko da egun horretara helduko diren finalisten artekoarekin. Herriko palistekin jokatzen den txapelketak hurrengo edizioetan kanpotarrei ere zabaltzeko asmoa dute antolatzaileek, *"gu ere orain arte Eibartik kanpo jokatzen zirenetan hartu behar izan dugulako parte"*. Jokatzen diharduten lehen fasean bikoteak lau multzotan banatu dira eta bakoitzetik lehen bi sailkatuek egingo dute aurrera, euren arteko ligaxka jokatu eta gero. Sailkatutako zortzi bikoteen arteko final-laurdenak izango dira ondoren, finalerdien eta abenduaren 15eko finalaren aurretik. Partidu guztiak Astelena frontoian jokatzen dira eta, *"Kirol Patronatoa eta Udalarekin batera, Ez-Dok, Guridi, Buenos Aires, Hirurok, Katu-Kale, Bossa, Zubi-Gain, Atax, Askasibar eta Pelotadendak eskainitako laguntza"* eskertzen dute antolatzaileek.

## Herriko igerilariek indartsu hasi dituzte liga torneoak




**Eibar Igerixaneko ordezkariek hasiera bikaina eman diote Neguko eta Alebinen ligei.** Azpeitian jokatutako Negukoaren lehen jardunaldian hainbat garaipen lortu zituzten Eibarkoek: federatuen artean, maila absolutuan Roke Etxebarriak eta Maite Barruetabeñak bina proba bereganatu zituzten, juniorretan Paula Gabilondok eta Kai Zubiaurrek beste bina irabazi zituzten, eta infantiletan Miren Galdosek hiru garaipen eskuratu zituen; eskolarren artean, bestalde, Lucia Gabilondok hiru proba irabazi zituen eta Maddi Maguregik eta Leire Larrañagak bana. Aipatutakoez kanpo, 4x200 metroko erreleboetan Eibar Igerixanekoak nagusi izan ziren bai federatuetan eta baita eskolarretan ere.

Oñatiko Zubikoan jokatutako alebinen ligako lehen jardunaldian Eibarko zortzi igerilarik hartu zuten parte. Iker Calvo 400 libreán eta 100 bularrean nagusitu zen eta Ibrahim Benslaiman 100 bularrean. Hurrengo hitzordua Ipuruan izango dute, Neguko ligaren bigarren jardunaldian.

## Huescako Guaran izan ziren zubian Deporreko mendizaleak



**Hilaren 1etik 3ra 28 mendizalek osatutako taldeak Huescan izan dira Guarako mendilerroa egiten.** Lehenengo egunean 2.077 metroko Tozal de Guara egin zuten Nocitotik, bigarrenean Fajetas del Mascu eta hirugarrenean 1.283 metroko Punta Saosa. *"Eguraldi nahiko ona izan genuen eta ibili garen tokiak ikusgarriak izan dira"*, esan digute irteeran parte hartu dutenek.

Hurrengo zapatuan, bestalde, Deporreko mendi taldekoek Artzaintza Naturbidearen zazpigarren etapa osatuko dute. Hilaren 16ko irteera hori Artazan hasiko da, jarraian Dulantzera (1.243 metro) igo eta Lizarragan amaitzeko. Interesatuek 943-201904 telefonora deitu dezakete edo Deporretik pasatu, martitzen eta eguenetan, 19:30etik 20:30era.

## Aurpegia eman zuen Somosek Uharteko nafarren aurrean

**Urdulizi Ipuruan erraz irabazi ondoren, badirudi Eibar Eskubaloiak-eko lehen taldeak** indarrak berreskuratu dituela. 1. Nazional mailako taldeak erronka zaila zuen azken jardunaldian, Uharte sailkapeneko bigarrenari bisita egin behar ziolako; hori gutxi balitz, Eneko Garetxana eta Aner Cardoren bajak ere bazituen Fernando Fernandezen taldeak. Azkenean irudi ona eskaini eta hiru golengatik bakarrik galdu zuen Eibarko taldeak (26-23), *"hobetzearen ordaina jaso gabe"*. 60 minutuetan besoak jaitsi gabe erantzun zuen taldean Miguel Maiza (zazpi golekin) eta Axier Gisasola (seirekin) izan ziren goleatzaile nagusiak. Sailkapenean, dena dela, larri jarraitzen dute Somosekoak, azken postuetatik ihesi egiteko borrokan.



## Waterpolo taldeek, berriztuta ere, garaipen bidetik jarraitzen dute

**Aldaketa asko izan dute Urbat-Urkotronik waterpolo taldeek,** baina bikain aurrera eramandako harrobi-lanak fruituak jarraitzen du ematen. Lehen bi taldeek, jokalari gazteagoekin jokatzen badute ere, ezin indartsuago hasi dute denboraldia. Gizonezkoak, hirutik hirurak irabazita, liga sailkapeneko liderrak dira: Getxon jokatutako partiduan gaur egungo liga txapeldunak 5-12 nagusitu ondoren, defentsa kaskarreko partiduan Iruñeko Larrainari 19-13 irabazi zioten Orbean. Davide Cerchi entrenatzaileak hobeto defenditzea eskatuko die domekan Leioako igerileku zailean irabazi ahal izateko. Emakumezkoen taldeak, bestalde, *"harritzen"* jarraitzen du eta lau partidutik hirutan nagusitu dira, *"orain dela hilabete bat pentsaezina zen marka lortuta"*. Orbean Larrauriri 13-5 irabazi eta gero, Iruñean 4-11 nagusitu zitzaion Larrainari azken asteburuan. Gainera, ez da harrobi kontua bakarrik: Urbateko master taldeak ere indartsu hasi zuen liga, lehen jardunaldian Gasteizko Lautadari erraz irabazita. Logroño izango dute aurkari asteburu honetan.



## Asteburu ezin arrakastatsuagoa Aitor Hernandezentzat ziklo-krosean

**Aurreko asteko barixakuan hasi eta domekan amaitu, Specialized-Ermua Innpulsoko txirrindulariak** jokatutako hiru probak bereganatu zituen. Domusantu egunean Euskal Federazioaren egutegiko laugarren proba, Legazpiko IX. Ziklokrosa, irabazi zuen. Ermuarrak seigarrenez lortzen duen garaipenean minutu bat inguru atera zion Miguel Sanchez bigarrenari. Colindresen zapatuan Sanchez bera izan zuen atzetik helmugan, oraingoan Aitor Hernandezengatik 45 segundora. Eta domekan Berrizen, Aitor goitik behera nagusi izan zen proban, minututik gorako aldea kendu zion Jon Munitxa bigarren sailkatuari. Asteburu honetan erronka zailagoak izango ditu Ermukoak, Arbulun eta Karrantzako nazioartekoan.





## Pello Osoro hirugarrena izan zen Ibizako triatloian

**Eibartarrak hiru ordu, 53 minutu eta 44 segundo behar izan zituen Ibizan** jokatutako distantzia erdiko Espainiako triatloi txapelketan. Ander Okamika irabazlearengandik sei minutura helmugaratu zen eibartarra eta Emilio Aguayo bigarrarengandik minutu eta erdira. Emakumezkoetan Helene Alberdi izan zen lehenengoa, Usoa Ostoloaza eta Eva Ledesmaren aurretik.

# Ipuruako gimnastak Iruñean, Espainiako txapelketa eta Kopa jokatzen

**Eguaztenean indibidual mailako oinarri Koparekin hasi zen Navarra Arenan** asteburu osoa hartuko duen lehiaketa sorta. Gaur eta bihar infantil eta jubenil oinarri mailako taldeek hartuko dute parte, hurrenez hurren; eta senior taldeak Kopako hirugarren fasea jokatuko du etzi, Guadalajaran izandako aurrekoan brontzea irabazi eta gero. Gernikako Xixili eta Uteboko Udal torneoetan Ipuruako senior taldeak urrezko beste domina bi bereganatu zituen: denboraldian jokatutako zazpi torneoetatik, sei irabazi ditu eta batean bigarren izan da. Gernikan Eibarko juniorrak hirugarren izan ziren eta, oinarri mailako talde biei dagokienez, jubenilek bigarren amaitu zuten eta infantilek laugarren. Azken horiek azpitxapeldun izan ziren Utebon.



*Oinarri infantil mailako Naroa Alonso eta oinarri kadeteko Arrate Baskaran.*

# Mikel Mujikak Caja Ruralen egingo du hurrengo denboraldia

**Eibar Energia Hiriko azken denboraldiko liderrak ez du bere tokia aurkitu txirrindularitza profesionalean** eta denboraldi berrirako Caja Ruralen filialarekin sinatu du elite mailako amateur modura. 21 urteko legazpiarrak orain arteko denboraldi onena egin du, ohorezko hainbat postu bereganatuta: bigarren izan da Urrakin, hirugarren Natxituan eta zazpigarren Bidasoako Itzulian, beste lorpenen artean.






# Andoni Mayo podiumetik gertu txakur-kros denboraldi hasieran

**Arrigorriagan ofizialki hasi zen 2019-20 txakur-kros denboraldia** eta han izan ziren Andoni Mayo eta Sonia Dominguez gure herriko ordezkariak. Ausartak elkarteak antolatutako probak ibilbide menditsu eta gogorra izan zuen, 8 kilometrokoa eta 350 metroko desnibelarekin. Guztira 80 parte-hartzaile izan ziren, Euskal Herri guztitik eta Burgos eta Errioxatik joandakoak. Mayok bosgarren amaitu zuen Dexter txakurrarekin, bigarrenarengandik segundo gutxira; eta Dominguezek 12. postuan amaitu zuen emakumezkoetan Zeus txakurrarekin. Hilaren 16an eta 17an izango dituzte hurrengo hitzorduak, Logroñon eta Burgoseko Juarrosen, hurrenez hurren.

# San Pedro bolatokiak hartuko du bihar Euskal Herriko txapelketa

**Elgoibarko San Pedro bolatokiak hartuko du bihar arratsaldean** Euskal Herriko 30. hiru-txirlo txapelketaren hirugarren jardunaldia. Orain dela hamabost egun Ziortza-Bolibarko Iruzubietan jokatutako bigarrenean 70 bolarik hartu zuten parte. Xabier Loiola elgoibartarra (San Miguel) nagusitu zen, Markina-Xemeingo Lander Odiagarekin (MX3T) parrekoak egin eta gero. Sailkapen nagusian ere aipatutako biak dira nagusi, bizkaitarra hiru txirlo gutxiagorekin.






# Eibar Rugby Taldeak berdindu egin zuen Zarautzen

**Eibar Avia Rugbykoek azken porrotak baztertu zituzten azken jardunaldian** eta oraingoan berdinketa behintzat eskuratu zuten Zarautzen jokatutako partiduan, 22ra. Kostaldekoak aurretik daude sailkapenean eta Asti zelaian lortutakoa ontzat jo daiteke Gaston Ibarbururen mutilentzat, nahiz eta partiduko azken jokaldianirabazteko aukera ere izan zuten. Bihar Unben izango dute erronka, Gernikaren aurka 17:30ean.





Maria R. Laspiur artista eta moda diseinatzaile eibartarrak eta Jaime A. Limousin ingeniari eta musikariak 'Posidonia' proiektua osatzen dute. Orain dela pare bat urte Mariaren lan artistikoan oinarritutako bitxi-kolekzioa sortzeko abenturari ekin zioten. Bitxiak, belarritakoak gehienbat, Donostian daukaten tailerrean egiten dituzte, 3D inpresioaren bitartez. Diseinu koloretsu, ekologiko eta biodegradagarriak dira. Denbora laburrean Mariak diseinatzen dituen osagarriak *Vogue* bezalako argitalpen espezializatuetara iiritsi dira.

# MARIA ROMERO LASPIUR (@MRLASPIUR):
# "Gure proiektuan artea, diseinua eta teknologia berriak elkartzen dira"

***- Nola bururatu zitzaizuen 3D inpresorak erabiltzea?***

Ni arte mundutik nator eta Jaime, berriz, ingeniaritzatik. Orain dela pare bat urte, Madrilen geundela, Jaimek 3D inprimagailu bat erostea proposatu zidan, eta nik marraztutako lora batekin froga bat egitea erabaki genuen. Belarritako bat sortu genuen, eta sarera igo genuen. Horrela hasi zen gure proiektua. Nahiko inprobisatua izan zen.

***- Orain estudioa Donostian daukazue eta teknologia hori erabilita gauza desberdinak egiten dituzue.***

3Dko mundu hori oraindik nahiko ezezaguna dela ikusita, estudioa Donostian zabaltzea erabaki genuen. Nire gauzez aparte beste diseinatzaileentzako lanak ere ekoizten ditugu. Tailer moduko bat sortu dugu, eta aurrekaldean denda txiki bat daukagu. Bertan artista lokalen gauzak ditugu. Artisten arteko elkargune bat izan nahi du.

***- Nolakoak dira egiten dituzuen bitxiak?***

Gehienbat belarritakoak egiten ditugu, baina orratzak, lepokoak eta brotxeak ere badaude. Denak dira nire pinturetan inspiratutako formak. Niri bizitzako etapa batean landareen formak marrazten hasi nintzen, bizitza alaituko zidatela uste nuelako, eta hortik atera zen lehenengo kolekzioa. Beti



JOSETXO ARANA (2016-XI-8)
– 3. URTEURRENA –



"Itzali ezin den argia zarelako"

ASKO MAITE ZAITUGU -ETXEKOAK-



jarraitu dut landare imaginario batean inspiratzen kolekzio guztiak egiteko.

*- Arrakasta handia lortzen ari zara zure disenuekin eta bistakoa da koloreak pisu handia duela.*

Belarritako gehienak oso koloretsuak dira, azkenean belarritakoetan gehien faborezitzen duena kolorea delako. Egia esan, oso lagungarriak dira. Ezpainak margotzea bezalakoa da. Belarritakoak ipintzen dituzu eta ukitu berezia ematen dizute. Azken kolekzioko koloreak larrosa, zuria eta urdina dira, eta udazkeneko fruta-arboletan oinarritu naiz.

*- Erabiltzen duzuen materiala ere ez da nolanahikoa.*

PLA izeneko polimero bat erabiltzen dugu eta landare-jatorria du. Material biodegradagarria eta ekologikoa da, eta oso arina. Horrelakoak egiteko ezinhobea! Belarritako edo gantxo handiak egin arren, ez dute pisatzen, eta erosoak dira. Soinean daramatzagula ere ez dugu igartzen.

*- Zuen bitxiak Vogue bezalako moda aldizkari inportanteetan agertu dira eta denbora laburrean zuen markak ospe handia lortu du. Sare sozialak ezinbestekoak bihurtu zaizkizue?*





"Egiten ditugun bitxiak nire margoetan inspiratutako formak dira. Landare imaginario batean oinarritutako lanak"

Lortu dudan guztia *Instagram* bitartez izan da gehienbat. Hasi ginenean *Instagram*en gauzak igotzen hasi nintzen, eta urtebete pasa baino lehen *Vogue*n azaldu ginen. Ez hor bakarrik, moda aldizkari gehiagotan ere azaldu gara eta Estatu Batuetan oso ospetsua den blog batean aipatu gintuzten. Horrek nazioarte mailan saldu ahal izatea ahalbidetu du. Gure lehen merkatua Espainia da eta bigarrena Estatu Batuak. Eta hori guztia blog horretan lan egiten duen neska batek belarritakoak erosi zituelako eta mordoa gustatu zitzaizkiolako. Blogean argitaratu zuen eta eragina sekulakoa izan zen. Gaur egun sare sozialak oso garrantzitsuak dira. Momentu batean herrialde guzietako publiko zabal batengana iritsi zaitezke. Gure bitxiak saltzeko webgunea erabiltzen dugu (mrlaspiur.com) eta, horrez gain, hainbat lekutako dendetan daude salgai. Eibarren, esate baterako, *Klaus* dendan egoten dira.

*- Plataforma digitalen bidez jendea erakartzeko oso inportantea da kalitatezko edukia sortzea eta horretan diharduzue...*

Egunero zerbait igotzen dut eta, bestalde, oso inportantea da argazki-lana. Aitor Laspiur nire lehengusuarekin egiten dut lan. Bera argazkilaria da eta kolekzio guztietako sesioak berarekin egiten ditut. Ukitu zinematografikoa daukate. Kontzeptuari garrantzia ematen saiatzen gara eta ez bakarrik produktuari. Hasieran erabiltzen genituen modeloak gehienbat gure ezagunak ziren, baina orain modelo profesionalak kontratatzen hasi gara. Kanpaina batetik bestera aldatzen saiatzen gara. Bestalde, beste sortzaile, diseinatzaile eta estilistekin kolaborazioak egiten ditugu, eta horiek ere gure sareen bidez zabaltzen ditugu.

*- Gauza asko ikasi dituzue urte bi hauetan?*

Kolekzio bakoitzean aurrerapausu bat ematen saiatzen gara, teknika berri bat sartzen, testurekin esperimentatzen… Hasi ginenean ez genekien ia ezer, eta apurka-apurka joan gara ikasten.

*- Nolakoa da 3Dko belarritako hauek sortzeko prozesua?*

Hasieran marrazkiak egiten ditut. Hortik belarritakoentzako forma basikoak ateratzen ditut. Ordenadorera eramaten ditut eta bektorizatzeko programa bat erabiltzen dut, plano moduko bat lortzeko. Ondoren hori hiru dimentsiotan diseinatzen dugu. Beste programa batean 3Dko pieza hori nolako izan nahi dugun zehazten dugu: testura mota, zenbat kapa, hau da, estruktura nolako izango den erabakitzen dugu. Ondoren inpresoran sartzen dugu. Bitxien proiektu hau produktua baino gehiago da. Sormen proiektua da, eta horrela ulertzen dugu guk.



# Nerea Iriondo Mujika

*2019ko urriaren 30ean hil zen, 62 urterekin*



**"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"**

ZURE KUADRILA



**JULIO CALLEJA:** Badira 15 urte.




Astelehenean abiatu ziren Asier Errasti Eibarko XX. Film Laburren Jaialdiko proiekzioak, Coliseo antzokian eta bihar, berriz, Javier Agirresarobe Saria jasoko dute aurtengo irabazleek, 19:30ean hasiko den galan. Hala ere, nahiz eta sariei izena eta babesa gure mugetatik kanpora goi mailan diharduen argazkilari eibartarrak eman, biharko ekitaldian Eibarko Film Laburren Jaialdia sortu zuen Asier Errasti omenduko dute, bere heriotzaren 20. urteurrenean.

# Biharko galak itxiko du Asier Errasti Film Laburren Jaialdiaren 20. edizioa

Aurreko astean aurkeztu zuten Asier Errasti film laburren jaialdiaren XX. edizioa Portalean Patxi Lejardi Kultura eta Euskara zinegotziak eta jaialdia antolatzen duen Plano Corto elkarteko Oscar Lopez de Zubiria, Natalie Hickey eta Koldo Carranzak. Azaldu zutenez, edizio honetan, guztira, 171 film labur jaso dira. Horietako 158 fikziozko atalean lehiatuko dira eta beste 13 lanak, berriz, animaziozkoak dira. Hizkuntzari dagokionez, gaztelerazko lanak dira gehienak: euskeraz 7 film labur aurkeztu dituzte eta beste 14 atzerriko hizkuntzaren batean. Aurten ez da Eibarko lanik jaso eta, beraz, sari hori eman barik geratuko da. Bestalde, antolatzaileen berbetan, *"gai sozialak dira aurtengo protagonista nagusiak: genero indarkeria, zahartzaroaren ondorioak, haurren begirada eta bidegabekeria soziala modukoak landu dira gehienbat"*.

Jaialdira aurkeztutako lanen proiekzioak astelehenean hasi ziren eta gaur emango dituzte egitarauko azkenak: "Los pasajeros del viento" (Juanjo del Junco), "Snorkel" (Borja Soler), "Tu dia de suerte" (Fele Martinez), "I wish" (Victor L. Pinel), "Beldur Malutak" (Ander Iruretagoiena, Telmo Irureta), "Happy Friday" (Jose Antonio Campos Aguilera), "9 pasos" (Marisa Crespo, Moises Romera), "Caligrafía" (Ferran Masip Valls) eta "Moros en la costa" (Damià Serra Cauchetiez). Egunero bezala, 20:00etatik aurrera ikusi ahal izango dira, Coliseo antzokian (sarrera doan da).

Sari-banaketa ekitaldia, berriz, bihar izango da, 19:30ean Coliseoan hasiko den gala berezian Asier Errastiri omenaldia egingo diote eta, gainera, hari buruz egin duten dokumentala emango dute. Ekitaldia Lorea Arakistain kazetari eibartarrak aurkeztuko du, Nerea Ariznabarreta eta Mikel Areitio aktoreen laguntzarekin. Asier Errastiri buruzko ikus-entzunezkoa egin duen Natalie Hickeyk azaldutakoaren arabera, *"aurten Asier Errasti hil zela 20 urte bete dira eta, horregatik, bere omenez zerbait berezia egin nahi genuen. Azken batean berak sortu zuen gaur egun bere izena daraman jaialdia, lehen edizioa antolatu eta, zoritxarrez, handik egun gutxira hil zen"*.

Lanaren egileak ez zuen Asier zuzenean ezagutu, baina hari eskainita prestatu duten 22 minutuko dokumentalak Asierri gerturatzeko aukera eman dio, zalantza barik. Ikus-entzunezkoa sortzeko Errasti ezagutu zuten hainbat lagun elkarrizketatu dituzte eta, egilearen berbetan, *"dokumentalean eman dudan pauso bakoitza Asierrek lagunduta izan da. Horiek dira elkarrizketatu guztiak hari buruz egin dizkidaten aipamenak. Asierren munduari buruzko zatitxoak dira: oso haur isila zen, baina, aldi berean, argia; jakin-min handiko gaztea; mundua jateko gogoz zebilen gizona…"*.

## Omenaldia biharko galan

Oso gazte hil zen Asier Errasti eta, horregatik, bere lehen laburmetraia, "1999" izenburukoa, azkena ere izan zen, baina filmatzen ari zela ezagutu zuen Plano Corto elkartea sortzera eta jaialdia martxan ipintzera animatu zuen Jose Miguel Calle: *"Kalean plano batzuk grabatu nahi zituen eta Udaltzaingora jo zuen horretarako baimen-eske. Kasualitatez, horrenbeste urtetan Eibarko Udaltzainburua izan zenak zinemarekiko zaletasun handia dauka eta, horrela, hari horri tiraka sortu zen bien arteko harremana"*.

Gaur egun jaialdia antolatzen dutenek biharko gala Asier Errastirentzat omenaldi bilakatu nahi dute eta, horregatik, Natalie Hickeyk zuzendutako "Txas" dokumentala eta Asier Errastiren "1999" izeneko film laburra proiektatuko dituzte. Oraingoan, beraz, ez da saritutako laburmetrairik erakutsiko.

Bestalde, aurten, berritasun gisa, umeendako proiekzio berezia antolatu dute: azaroaren 16an (zapatua), 11:00etan Portaleko areto nagusian "A zer nolako heroiak" izenburukoa emango dute (euskeraz). Kasu honetan ere sarrera librea izango da eta, gainera, filmarekin zerikusia duen material didaktikoa banatuko dute.



# “Asko kostatzen da hainbat eskubide lortzea, baina oso gutxi galtzea”

GENA BAAMONDE
(antzerki-zuzendaria)

‘A Panadaria’ antzerki-taldeak Elisa eta Marcelaren istorioa kontatuko du hilaren 15ean, barixakua, 20:30ean, Coliseoan. A Coruñako San Xurxo elizan ezkondu ziren Elisa eta Marcela, eta Areta Bolado, Noelia Castro eta Alien Kendelman aktoreek umore kutsuarekin kontatuko dute Gena Baamondek idatzi eta zuzentzen duen istorioa.

*- Zeintzuk izan ziren Elisa eta Marcela?*

1901. urtean ezkondu ziren bi emakume galiziar izan ziren, Espainiako estatuko emakumeen arteko lehen ezkontzako protagonistak. Elisa gizonezko moduan jantzi zen eta apaiza ez zen konturatu. Gainera, guk dakigunez, ezkontzak elizan erregistratuta jarraitzen du gaur egun, elizak ez zuen baliogabetu. Istorio liluragarria da, telesail bat egiteko modukoa. Bikoteak guztia prestatu zuen. Elisa Galiziara bueltatu zen Marcelaren lehengusu protestante bat zela esan zuten eta katolizismora pasa nahi zela. Orduan, gizonezko bezala bataiatu zuten, paper berriak eman zizkioten eta, horrela, ezkondu egin ahal izan ziren.

- Telesaila ez, baina antzezlana egin duzue gai horren inguruan. Noraino da erreala eta noraino fikziozkoa?

Nahiko sinesgabeak gara historiarekiko, ni bereziki. Gaur egunera arte kontatu diguten historia nahiko heterozentratua izan dela onartu behar da, gizonek kontatu digutena eta emakumeak albo batera utzi dituena, eta zer esanik ez LGTB komunitateko pertsonak. Beraz, zer da errealitatean gertatu zena? Narciso de Gabrielek Elisa eta Marcelari buruz idatzitako liburuan ekintza dokumentatu batzuk azaltzen dira, baina handik eta hemendik kontakizun ezberdinak heltzen zaizkigu. Orduan, dokumentatuta dauden ekintzetatik abiatzen gara fikzioa egiteko.

- Antzezlanak 1901. urtera eramaten gaitu. Nolakoa zen sasoi hartako gizartea?

Galizia eta Euskal Herriko testuinguruak ezberdinak zirela uste dut. A Coruña, adibidez, nahiko hiri frantsestua zen. Elisa eta Marcela inozotzat jartzen dituzte hainbat tokitan, egin zutena pentsatu barik egindako zerbait izango balitz bezala, baina irakasleak ziren, kultuak, eta trabestismoa jendeak pentsatzen duena baino ohikoagoa zen sasoi hartan. Erraminta moduan erabiltzen zen. Batzuetan iraganaren ikuspuntu urria dugu eta iraganeko kontuetan pixka bat harraskatuz gero, harritu egin gaitezke.

*- Elisa eta Marcelaren ezkontzatik 118 urte pasa badira ere, gauza asko dago egiteko LGTB gaien inguruan?*

Ezetz esatea gustatuko litzaidake, baina bai, gauza asko dago egiteko. Ez dut alarmista izan nahi, nahiko egoera ona dugu, baina justu egun hauetan sentikor nago politikak hartu duen norabide ultraeskuindarrarekin, testuinguru arriskutsuetan murgildu garelako eta duen garrantzia ematen ez diogulako. Asko kostatzen da hainbat eskubide lortzea, baina oso gutxi galtzea.

*- Zuek ere arazoak izan zenituzten hasieran antzezlana eskaintzeko. Zer gertatu zen?*

Ez dut asko esajeratu nahi, baina hasieran hainbat gauza gertatu ziren. Lesbianismoa sustatzen genuela eta publiko guztientzako antzezlana ez zela esan ziguten. Ez genekien barre edo negar egin. Gero, publikoaren harrera hain ona izan zenez eta sariak jaso zituenez, inor gehiago ez zen ausartu antzezlana zalantzan jartzera.



## Guraso Berbalagunak Peru Harri museoan

**Perurena harrijasotzaileak Leitzan duen museoan egon zen Gurasoak Berbetan egitasmoko** talde polit bat urriko azken zapatuan. Esandakoaren arabera, *“museo berezia da, Iñakik eta bere seme Inaxiok historia eta kultura kontatzen dute, harriaren bitartez. Kanpoaldean eskultura izugarriak daude, adibidez 8 metro luze eta 40 tonako pisua dituen harrijasotzaile erraldoiarena”*. Perurena bera izan zuten gidari, eta hainbat harri eta tramankulu probatzeko aukera ere izan zuten hara joandakoek.

## Azkar eta goxo sukaldatu zuten ...eta kitto!-n

**Illunabarrian programaren barruan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako sukaldaritza-ikastaroak** oso harrera ona izan zuen. Oraingoan Fast Good izenekoa eskaini zuten Ortutik Ahora elkarteko Irati eta Sergiok, eta izena emanda zeuden hamabi lagunek azkar eta goxo sukaldatzen ikasi zuten. Euskara Elkartean izan zen tailerra eta, besteak beste, barazki-hanburgesak, ketchup-a eta pita-ogia egin zituzten.





## The Reverend Shawn Amos-en kontzertua domekan Portalean

**Portalea Musika Klubaren eskutik domekan The Reverend Shawn Amos-en kontzertua hartuko du** areto nagusiak, 19:30ean. Taldea Los Angeles hirian sortu zen, 70eko urte-aldian, Marvin Gaye eta Quincy Jones handien eraginpean. Wally "Famous" Amos eta Shirleey May R&Beko kantariaren semea izanik, ez da harritzekoa Shawn musikari profesionala izatea. Ekoizle bezala ere lan ugari egin du: musika berriarekin ez ezik, R&Baren historian mitoak diren hainbaten (Solomon Burke, John Lee Hooker, Johny Guitar Watson…) atzera begirako bildumak gainbegiratzen lanean jardundakoa da. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Lagun txartelarekin).



## La Novena-Ikasten taldeak lan berria aurkeztuko du eguaztenean

**Poesia, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du eguaztenean** La Novena-Ikasten taldeak, 20:30ean Coliseo antzokian. Ernesto Barrutiak zuzenduta, lehen zatian Federico Garcia Lorca, Antonio Machado eta Mario Benedettiren poemak errezitatu eta abestuko dituzte eta bigarren zatian, berriz, Alvarez Quintero anaien "Ganas de reñir" sainetea antzeztuko dute. Taula gainean, Isa Gonzalez eta Ernesto Barrutia antzezleekin batera, Juan Luis Agirre (pianoan) eta Vicente Belda (gitarra eta perkusioan) arituko dira. Sarrerak 5 euro balio du.

## "Barbacana, la huella del lobo", GNaturaldiaren barruan

Martitzenean, 19:00etan, "Barbacana, la huella del lobo" filma eskainiko dute Coliseo antzokian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzako GNaturaldiaren eskutik. Arturo Menorrek zuzendutako ekoizpenak 2020 Goya sarietarako bederatzi izendapen ditu eta, besteak beste, naturaren soinuetan aditua den Carlos de Hitaren parte-hartzea izan du. Acajú ekoiztetxeko lantalde teknikoaren lan bikainari esker, dokumentalak otso baten bizimodua bere ingurune naturalean nolakoa den erakusten du: otsokumeak nola jaiotzen diren, familia-klan baten egunerokoa nolakoa den… Eibarko saioan, gainera, Carlos de Hitak hartuko du parte eta, filma eman aurretik, otso baten entzumenarekin soinu erakustaldia egingo du. Sarrera doan izango da, toki guztiak bete arte.






## Modari buruzko saioa

Datorren eguenean "Fuck Fast Fashion. La realidad oculta de la moda" gaiari buruzko solasaldia egingo da Eibar Coworking-en (Eibarko Txikito, 8), 18:30etik 20:00etara. Moda jasangarrian oinarritutako "Royo" proiektuarekin On Ekin lehiaketako bigarren saria eskuratu zuten Nuria Robleño eta Sofía Machin eibartarrek, modaren industriari buruz berba egiteaz gain, Indian grabatutako "Made in Eibar for" dokumentala emango dute eta, amaieran, "networking" saioa egingo da. Moda munduaren inguruan interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

## Animadebako lanen proiekzio bikoitza antolatu du Udal Euskaltegiak astelehenerako



**Eibarko Udal Euskaltegiak astelehenerako proiekzioa antolatu du, bere sorreraren 35. urteurrena** ospatzeko egitarauaren baitan: ekainean egin zen Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldian, lehiaketan parte hartu zuten film labur batzuk emango dituzte Portalean (areto nagusian) eta, horrekin batera, Aitor Oñederra zuzendariak animazio filmak nola egiten diren, nolako teknikak erabiltzen dituzten eta beste kontu batzuk azalduko ditu. Galderak egiteko aukera ere egongo da. Bi emanaldi egingo dira: lehena 09:30ean eta bigarrena, berriz, 17:00etan. Sarrera librea izango da.

## Zabaldu dute “Soka, Euskal Dantzaren Urratsetan”



**Astelehenaz geroztik eta abenduaren 15era arte "Soka, Euskal Dantzaren Urratsetan"** erakusketa ikusteko aukera izango da Dantzan Biharrian-en egoitzan (Ubitxa 16-18 behea). Erakusketa multimedia honek 150 metro karratutan euskal dantzari begirada zabal eta sakona eskaintzen dio, 400 bat ilustrazio (artxibo bideoak, elkarrizketa zatiak, soinu zatiak eta artxibo irudiak), zazpi bideo sorkuntza original, 14 ukipen-pantaila, formatu handiko 7 HD telebista, 6 koadro digital, 15 ordenagailu eta 9 irakurgailuren bitartez, eta lau hizkuntzatan (euskeraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez). Erakusketa Euskal Kulturaren Erakundeak (EKE) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak produzitu dute eta Dantzan elkarteak ere parte hartu zuen erakusketaren edukien prestaketan. Astelehenetik barixakura, 09:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta zapatu, domeka eta jai-egunetan, berriz, 11:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara.

Bestalde, erakusketa zabalik dagoen bitartean eskolekin eta taldeekin hitzorduak adostu eta bisita-gidatuak eta egokitutako jarduerak eskainiko dira (kezka@dantzan.com). Horrez gain, azaroaren 21ean, 19:30ean, erakusketara bisita-dantzatua egingo da, Patxi Labordarekin. Eta abenduaren 12an, 19:30ean, euskal dantza, tradizioa eta sorkuntzaren inguruko gogoeta-saioa antolatu dute Juan Antonio Urbeltz eta Iñaki Arregirekin.

## Aire Zabaleko Pintura Lehiaketak artisten lana kalera atera zuen

**Urriko azken domekan egin zen Eibarko Artisten Elkarteak antolatutako XLII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa** eta epaimahaikideek lehen saria Piedad Santamariari (Leioa) eman zioten. Bigarrena Udane Juaristik (Azkoitia) eskuratu zuen, hirugarrena Alvaro Gilek (Garaioa) eta laugarrena Carlos Espigak (Bilbo). 18 urtera artekoen artean, berriz, lehen saria Anne Pascual Palaciosek (Donostia) jaso zuen eta bigarrena Aiora Goitandia eibartarrak. Eta 12 urtera artekoen mailan, lehena Martina Garate izan zen eta bigarrena Maider Iglesias (biak eibartarrak). Aurten 53 parte-hartzaile egon dira guztira, horietako 24 helduen mailan.





## Harrera beroa Debabarreneko Orfeoiari Salamancan

**Debabarreneko Orfeoiak “Ponpas-Bubbles” ikuskizuna aurkeztu zuen** aurreko asteburuan Salamancan. Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen taldeak bi kontzertu eman zituen, bat hiriburuan, La Purisima elizan eta beste bat, berriz, probintzia berean dagoen La Alberca herrian eta bietan izandako harrerarekin pozarren daudela azaldu du zuzendariak.

## Jon Maia nagusi Coliseoko saioan



**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren finallaurdena Coliseo antzokian jokatu zen** eta bertan Jon Maia nagusitu zen, 475 punturekin. Jokin Uranga izan zen bigarren 467’5 punturekin eta hirugarren sailkatu zen Unai Muñoa, 451 punturekin. Emaitza horrekin, Maia zuzenean sailkatu zen abenduaren 1ean Tolosan jokatuko den finalerdietarako.

## San Andres Bertso Jaialdirako sarrerak salgai

**Azaroaren 24an egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres jaien bueltan** urtero antolatzen duen Bertso Jaialdia. Portaleko areto nagusian izango da 18:30etik aurrera. Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara jardungo dute Onintza Enbeita, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Maddalen Arzallus bertsolariek. Aurretik, baina, aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak banatuko dira eta irabazleek euren bertsoak kantatuko dituzte. Sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Guridin salduko dira astelehenetik aurrera 6 eurotan. Egunean bertan ere egongo da sarrerak erosteko aukera, Portalean.




## XXX. San Martin Azoka egingo da bihar ERMUAN

Euskal Birusa Elkarteak antolatuta, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko San Martin Azokarako. Goizeko 11:00etan postuak zabalduko dituzte eta dantzak egingo dira. Belar-meta eta abere eta hegaztien erakusketa ere izango da eta herri-kirolak ez dira faltako. 13:30ean sari-banaketa ekitaldia egingo dute eta, goizekoarekin amaitzeko, 15:30ean babajanaren ordua izango da Jator kiroldegiaren gainean. Arratsaldeko 18:00etan Luhartzek erromeria gidatuko du eta ordu erdi geroago gaiteroek kalejira egingo dute.




## Soziedad Alkoholikaren kontzertua bihar AZPEITIAN

Bihar gaueko 22:00etan kontzertua emango dute Soziedad Alkoholika eta Saia Goait taldeek Azpeitian, San Agustin kulturgunean. Gasteizen 1988an sortutako Soziedad Alkoholika crossover thrask musika taldea da eta militarismoa, faxismoa, arrazakeria edo sexismoa gogor kritikatzen dituzten euren letretan. Disko kopuru ederra saldu dute estatu osoan. Aurretik, Saia Goait Mutrikuko taldeak berotuko du giroa. Sarrerak salgai daude 16/19 eurotan.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Roman Escudero Perez.** 64 urte. 2019-X-23.
- **Roman Oneca Lozano.** 84 urte. 2019-X-23.
- **Mª Luisa Castillo Mallabiabarrena.** 93 urte. 2019-X-24.
- **Cristalina Garrido Lage.** 90 urte. 2019-X-27.
- **Felix Izaga Lucas.** 81 urte. 2019-X-28.
- **Ignacia Unanue Zubimendi.** 92 urte. 2019-X-28.
- **Angel Martinez-Alcocer Horcajada.** 93 urte. 2019-X-30.
- **Nerea Iriondo Mujika.** 62 urte. 2019-X-30.
- **Saladina Docabo Rodriguez.** 83 urte. 2019-X-31.
- **Mª Asun Martinez Carbajo.** 87 urte. 2019-XI-1.
- **Mª Teresa Bereziartua Atxa.** 87 urte. 2019-XI-4.
- **Antonia Albillos Martinez.** 91 urte. 2019-XI-4.

## jaiotakoak

- **Manael Mputu Nkinzi.** 2019-X-23.
- **Wael Berghout Agherbi.** 2019-X-24.
- **Adam Chakik.** 2019-X-26.
- **Praise Osahenrumwen Sunday Oyemiwa.** 2019-X-26.
- **Nico Ferreiro Arias.** 2019-X-29.
- **Aitana Dayana Maza Ponce.** 2019-X-29.
- **Uxue Alfageme Lazpita.** 2019-X-31.
- **Ainara Peña Chavez.** 2019-X-31.
- **Ismael Taghzouti.** 2019-XI-3.

## SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 5 | 4 | 3 | 1 | 6 | 7 | 2 | 9 |
| 6 | 7 | 1 | 2 | 5 | 9 | 3 | 4 | 8 |
| 3 | 2 | 9 | 8 | 7 | 4 | 5 | 6 | 1 |
| 2 | 4 | 3 | 9 | 6 | 8 | 1 | 5 | 7 |
| 7 | 9 | 5 | 4 | 2 | 1 | 8 | 3 | 6 |
| 1 | 6 | 8 | 5 | 3 | 7 | 4 | 9 | 2 |
| 4 | 3 | 6 | 7 | 8 | 2 | 9 | 1 | 5 |
| 5 | 8 | 2 | 1 | 9 | 3 | 6 | 7 | 4 |
| 9 | 1 | 7 | 6 | 4 | 5 | 2 | 8 | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | | | 6 | | 5 | |
| | 1 | 3 | | | 7 | | | 8 |
| | | | | 8 | | | 1 | |
| | | | 6 | | 9 | 2 | | |
| | 9 | | | 7 | | | 3 | |
| | | 6 | 5 | | 3 | | | |
| | 4 | | | 5 | | | | |
| 8 | | | 7 | | | 4 | 9 | |
| | 7 | | 3 | | | 1 | | |

## farmaziak

Barixakua 8
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Zapatua 9
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 10
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Astelehena 11
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Martitzena 12
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Eguaztena 13
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguena 14
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Barixakua 15
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI -2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

## telefono jakingarriak

**SOS deiak**................................*112*
**Pegora**....................................*010*
**Udaletxea**.................*943 70 84 00*
**Portalea**....................*943 70 84 39*
**Udaltzaingoa**............*943 20 15 25*
**Mankomunitatea**.......*943 70 07 99*
**Debegesa**.................*943 82 01 10*
**KIUB**.........................*943 20 38 43*
**Epaitegia**..................*943 03 34 00*
**Iberdrola**..................*900 17 11 71*
**Naturgas**...................*902 12 34 56*
**DYA Larrialdiak**.........*943 46 46 22*
**Gurutze Gorria**..........*943 22 22 22*
**Eibar Ospitalea**.........*943 03 29 00*
**Mendaro ospitala**......*943 03 28 00*
**Anbulategia**..............*943 03 25 00*
**Torrekua**...................*943 03 26 50*
**Errepideak**................*902 11 20 88*
**Ertzaintza**.................*943 53 17 00*
**Eusko Tren**...............*944 33 33 33*
**Lurraldebus**.............*900 30 03 40*
**Pesa**..........................*900 12 14 00*
**Taxiak**.......................*943 20 30 71*
..........................................*943 20 13 25*
**Andretxea**.................*943 70 08 28*
**Alkohol.Anon.**...........*629 14 18 74*
**Al-Anon/Alateen**........*650 26 59 63*
**Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak)**...*699 37 75 20*

## Barixakua 8

**LABURMETRAIAK**
**20:00.** XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiko ikus-entzunezkoen proiekzioa. Doan. Coliseoan.

## Zapatua 9

**ESKOZIA LA BRAVA**
**11:00/14:45.** Txosna: pintxoak, edariak eta Eskozia La Bravaren materiala, musikarekin girotuta.
**15:00.** Paella-jan solidarioa, Haize Aroaren laguntzarekin. Tiketak (10 euro) gaur gauera arte salgai Ametsa eta Azkena tabernetan. Untzagan (euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan).




**MAGOSTO JAIA**
**18:30/21:00.** Gaztaina erreak, txorizo-pintxoak, salda eta edariak. As Burgas Galiziako Kultur Etxeko Os Galaicos taldeak musikarekin girotuta. Urkizun.

**LABURMETRAIAK**
**19:30.** XX. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiaren amaiera gala eta Javier Agirresarobe Sariak banatzeko ekitaldia. Doan. Coliseo antzokian.

## Domeka 10

**MAGOSTO JAIA**
**11:30/14:30.** Gaztaina erreak, txorizo-pintxoak, salda eta edariak. Umeendako gaztainak, doan (12:30ak arte). As Burgas Galiziako Kultur Etxeko Os Galaicos taldeak musikarekin girotuta. Urkizun.



**PATINAK IPURUAN**
**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

**MUSIKA**
**19:30.** "The Reverend Shawn Amos" taldearen kontzertua (blues). Portalea Musika Kluba. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.



## Astelehena 11

**PROIEKZIOA**
**09:30 eta 17:00.** Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldian lehiatu ziren filmen emanaldia, Aitor Oñederra zuzendariak aurkeztuta. Udal Euskaltegiak antolatuta, 35. urteurrenaren harira. Portaleko areto nagusian.

**ELKARRETARATZEA**
**12:00.** Jubilatu eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

**BIDEO-FORUMA**
**18:30.** Emakumeen Istorioak: Coco Chanel. Pagatxa elkartearen eskutik. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Portalean (ikastaro gelan).

**GAZTAIÑERRE**
**19:00.** Gaztaiñerre ospatzeko kalejira eta ondra-janak, AEK euskaltegiaren eskutik. Paloma tabernatik abiatuta.

## Martitzena 12

**IKASTEN**
**10:00.** Euskera. Egungo arrisku gizartea. *"Esperantzarako baldi"* hitzaldia, J.M. Mujika filosofia irakaslearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**IKASTEN**
**16:00.** Puntu-tailerra.
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**GURASOAK MARTXAN**
**18:30.** *"Aprendizaje: familia, escuela, amigos/as"* hitzaldia (Baikara), LH-ko ikasleen gurasoentzat. Portalean.

**PROIEKZIOA**
**19:00.** *"Barbacana, la huella del lobo"* (Zuz: Arturo Menor) filmaren emanaldia (Gipuzkoa Naturaldia). Doan. Coliseo antzokian.

## Eguaztena 13

**IKASTEN**
**08:09.** Ibilaldia: Zumarraga-Azkoitia (trenbide zaharraren bidetik). Bazkaria eraman. Trenaren irteera, Ardantzatik (08:11ean Estaziñotik).

**GURASOAK MARTXAN**
**18:30.** *"Garapena eta gestio emozionala"* hitzaldia (Baikara), HH eta LH-ko lehen zikloan haurrak dituzten gurasoentzat. Portalean.

**EIBARKO KANTUZALEAK**
**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

**HITZALDIA**
**19:15.** *"Sexualidad y pareja"*, , Koldo Seco Velez psikologoaren eskutik. Untzaga Jubilatu Etxean.

**IKUSKIZUNA**
**20:30.** Poesia, musika eta antzerki fusioa (La Novena- Ikasten). 5 euro. Coliseo antzokian.

## Eguena 14

**IKASTEN**
**10:00.** *"Pozez betetako sexualitatea. Plazera eta elkartzea landuz"* hitzaldia, Maite Higuero Barandalla sexologoaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

**ODOL-EMATEA**
**18:00.** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

**KALEETAN KANTUZ**
**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatu etxean.
**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**GURE BALIOAK SARIA**
**19:00.** Gure Balioak 2019 Saria emateko ekitaldia. Sarrera librea. Coliseo antzokian.

## Erakusketak

**Azaroaren 17ra:**
– **"Ertibil Bizkaia 2019" ibiltaria** *(Portalea)*

**Abenduaren 1era arte:**
– **"Sukaldatzen made in Eibar"** *(Armagintzaren Museoa)*

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


Zorionak, LOREA, etzi 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu haundi handi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ETXAHUN, domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Xabaten partez.


Zorionak, GAIZKA, urriaren 29xan 14 urte egin zenduazelako. Etxeko guztien eta, batez be, zure arreba Garaziren partez.


Zorionak, MIKEL! Azkenian heldu da zure eguna be! 3 urte! Patxo potolo bat etxeko danon partez!


Zorionak, BEÑAT, gure txapelduna! 5 urte, mutil haundi! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.


Zorionak, MIKEL!!!, astelehenian 9 urte bete zenduazen-eta. Patxo potolo haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ARIANE Muñoz, martitzenian 10 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.


Zorionak, PAULA, urriaren 31n 8 urte bete zenduazen-eta. Laztan bat amatxo, aitatxo eta Mikel zure nebaren partez.


Zorionak, LIBE!!, hillaren 14an 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.


Zorionak, MIREN, gaur 7 urte egitten dozuz-eta! Oso ondo pasa famelixaren eta, bereziki, Malenen partez.


Zorionak, HIART, hillaren 4an 8 urte bete zenduazen-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure neba Ekainen partez.


Zorionak, NORA! Jaixo ziñaneko egunak emon zeskun oparixa urtero ospatu daigula!!!! Bederatzi ON!


Zorionak, ENEKO, hillaren 2xan 4 urte bete zenduazen-eta. Laztan haundi bat danon partez.


Zorionak, ANE, hillaren 3an 2 urte bete zenduazen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, BEÑAT, martitzenian 7 urte egin zenduazen-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, KOLDO, haraiñegun 10 urte bete zenduazen-eta. Famelixaren partez. Asko maite zaittugu.


Zorionak, IRATI!, hillaren 13an 8 urte egingo dozuz-eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, OIER-en partez.

# iragarkilaburrak

Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.


1. ETXEBIZITZA
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
- 2.1. Salgai

3. LOKALAK
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak


**943 20 09 18**
**publizitatea@etakitto.eus**

## 1. Etxebizitza

### 1.1.Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 $m^2$. Berogailuarekin. Tel. 615-781231.

### 1.2.Errentan

- Lau irakaslek pisua hartuko lukete Eibarren alokairuan. Bermearekin. Tel. 634-419894.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

## 3. Lokalak

### 3.1.Salgai

- Bi trasteleku salgai Julian Etxeberria kalean. 7'80 eta 9'64 $m^2$. Tel. 667-635797.

### 3.2.Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Biden, beheko solairuan. 95 euro hilean. Tel. 658-724552.
- Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Tel. 943-700173 eta 629-453397.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-630372.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-137348.
- Neska eskaintzen da tabernak, pegorak edo etxeak garbitzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 642-250488.
- Emakumezkoa eskaintzen da Durangon nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientziarekin. Tel. 644-558390.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketak egiteko. Tel. 635-587617. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-850826.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-576491.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburu arratsaldeetan ere. Tel. 607-417638.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Neska euskalduna eskaintzen da denda edo harrera-gune batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 635-706717.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauez eta ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Tel. 677-048696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-229408.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-188264.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-292690 eta 659-033477.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan, gauez eta ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 688-714388.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 643-076427eta 612-514135.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 658-385055.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-241311.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-415374.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Esperientzia. Tel. 632-506382.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-330459.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-378568.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 661-718993.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. Tel. 617-896989.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 666-197831.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 641-630794.
- Mutila eskaintzen da pintore moduan, igeltsero-laguntzaile bezala, etabar. Tel. 632-636393.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Orduka. Tel. 632-098382.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-980531.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Ziurtagiriarekin. Tel. 641-426543.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 688-871659.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 602-017736.
- Mutila eskaintzen da igeltsero, pintore edo tabernari lan egiteko. Tel. 661-718953.
- Emakumezkoa eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 632-515023.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-768803.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita gauez ere. 9 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Ordutegi malgua. Titulduna, esperientzia eta erreferentziekin. Tel. 603-514086.
- Emakumezkoa eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 631-975260.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 652-430110.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-233473.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 603-346659.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 642-829490.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-280518.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 15:00etatik 19:00etara. Tel. 617-628137.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-129530.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-209034.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ospitalean ere. Orduka. Tel. 688-959575.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 665-071463 eta 659-240147.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketak egiteko: etxeak, pegorak, sozeidadeak... Tel. 675-965130.

### 4.2. Langile bila

- Dekoratzailea behar dugu Eibarko denda dekorazio batean. Bidali curriculuma: m.c.agirrezabal@gmail.com
- Emakumezko euskalduna behar da arratsaldez umea lau orduz zaintzeko. Tel. 619-150710.
- Kamarera/o behar da Eibarren egun osorako. Bidali curriculuma: tre@euskalnet.net
- Sukalde-laguntzailea behar da. Bidali curriculuma honako helbidera: bar.oferta-empleoeibar@gmail. com

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Pertsona behar da astelehenetik eguenera LH1-eko 4. mailako klase partikularrak emateko. Tel. 699-476137 edo whasapp bidez.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH edo Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Matematika, Kimika, Fisika, Lengoaia eta Ekonomia. Tel. 678-987827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua (0'90) salgai. Koltxoia eta almohadarekin. Tel. 671-258740.
- Kafetera expres (Fagor) salgai: bi tazakoa. 30 euro. Tel. 659-538158.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Urriaren 27an umearen erlojua (beltza eta gorria) galdu genuen Barrena-Saratsuegi inguruan. Tel. 635-740726.




**Hyundai Kona Hibrido elektriko Berriak** gidatzeko gozamena beste maila batera igotzen du. Teknologia adimentsuari eta Bluelink konektagarritasun sistemari esker, zure smartphonearekin kontrolatu ahalko duzu une oro. Gainera, **Find May Car** sistema berritzailearekin, non aparkatu duzun gogoratzen ez duzunean aurkitu egingo duzu autoa. Kona Hibrido elektriko Berria Hyundai Kona Gama osatzera dator, eta **Espainiako 2019ko Urteko Kotxerik Onena** izendatu dute. Kona familiako kide berriak kotxe hibrido batengandik espero duzuna baino gehiago eskaintzen dizu.

Baina hau hasiera besterik ez da. Prest zaude? Etorkizun hibridoa zain dugu.
Zer izango da hurrengoa?

ABC 2019

Con etiqueta ECO

**OARSO CAR**
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

GRUPO EASO MOTOR

**ELGOIBAR**
**Olaso Polig., 17**
**943 74 14 80**

Erakusketa berria
**ARRASATE**
San Andres Auzoa, 6
**943 79 70 06**

HYUNDAI

5 URTE KM MUGARIK GABEKO BERMEA

8 URTE BATERIA BERMEA

Hyundai KONA HEV Gama: $CO_2$ emisio konbinatuak (gr/km): 114-122. Kontsumo konbinatua (l/100km): 5-5,4. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak. $CO_2$ emisioak (gr/km): 90-99 NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortutakoak.

Hyundai MOVE Smart finantziazio adibidea Kona HEV 1.6 GDI 104kW (141CV) KLASSerako: Prezioa 23.890,00€. Sarrera 6.199,00€. Eskatutako kopurua 17.691,00€. Formalizazio-komisioa (%3): 530,73€ eskura. 48 hilabeteko epea. 220€ko 47 kuota eta azkeneko kuota 11.124,94€koa. TIN %6,50, T.A.E %7,82. Zordundutako kopuru osoa 21.995,67€. Eskainitako finantziazioa Banco Cetelem S.A.U.k aztertu eta onartu beharko du. PSP gomendatua Penintsulan eta Balearretan. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundaira Aldaketa Plana aplika daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Finantziazioari lotutako gastuak ez daude barne (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak); www.hyundai.es/configurador webgunean ikusgai. Eskaintza 2019/11/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: Kona HEV Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. Hyundai Motor España S.L.U.k bere azken bezeroei eskainitako kilometro-mugarik gabeko 5 urteko bermea eta tentsio altuko bateriarentzat 8 urtekoa edo 200.000 kilometrokoa (aurrena gertatzen dena) Hyundairen sare ofizialak saldutako Hyundai ibilgailuetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.

IMH FABRIKAZIOAREN ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO DE FABRICACIÓN

Lanbide

HOBETUZ

# LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

## %100 diruz lagunduak

### 70 ikastaro baino gehiago webgunean: AUKERATU ZUREA!

| IKASTAROA | ORDUAK | HASIERA |
|---|---|---|
| SOLID EDGE II. Multzoak | 30 | 2019/11/11 |
| CAE elementu finituak NX NASTRAN | 32 | 2019/11/18 |
| Autocad | 40 | 2019/11/25 |
| SOLIDWORKS II. Multzoak | 30 | 2019/11/25 |
| NX gainazalak | 30 | 2019/12/02 |
| CATIA gainazalak | 30 | 2019/12/02 |
| AFME: Hutsegite moduen, haien eraginen eta kritikotasunaren azterketa | 16 | 2019/11/25 |
| CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko makina) | 20 | 2019/12/02 |
| HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa | 35 | 2019/11/18 |
| SIEMENS: programazio parametrikoa | 15 | 2019/12/02 |
| SIEMENS OPERATE: fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak | 14 | 2020/01/07 |
| HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak | 14 | 2019/12/09 |
| HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa | 14 | 2020/01/07 |

| IKASTAROA | ORDUAK | HASIERA |
|---|---|---|
| HEIDENHAIN 530: Programazioa | 40 | 2020/01/27 |
| HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua | 14 | 2020/01/27 |
| HEIDENHAIN: programazio parametrikoa | 15 | 2020/02/24 |
| SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa | 40 | 2020/01/27 |
| TIA Portal Siemens automata programagarriak 1.maila | 40 | 2019/11/12 |
| Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila | 30 | 2019/11/19 |
| ABB roboten programazioa 2. maila | 28 | 2019/11/25 |
| TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila | 30 | 2019/12/03 |
| ABB Roboten abiaraztea | 8 | 2019/12/09 |
| Neumatika | 24 | 2019/12/09 |
| Kalibrazio plana | 16 | 2019/11/18 |
| Perdoi geometrikoak gainazalekoak 2 Adituen G.P.S. ikuspegia | 16 | 2019/12/02 |
| PCDmis CAD ++ 2. MAILA | 25 | 2019/12/02 |
| Trantsizioa S7-tik TIA portalera | 12 | 2019/11/25 |
| Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak makinan | 16 | 2019/12/09 |

**IMH · Azkue auzoa 1 · 20870 Elgoibar · 943 74 82 66 · 943 74 41 32 · www.imh.eus · imhformazioa@imh.eus**






20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17

bista eder
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es